


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

ENTZUKETA MUSIKALA HAUR HEZKUNTZAN.

SERGEI PROKOFIEV, “PEDRO ETA OTSOA” (Op. 67)

IPUIN SINFONIKOA, PROPOSAMEN DIDAKTIKO

GISA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Arenaza Azurmendi, Helena.

ZUZENDARIA: García de la Torre, Txomin.

2021

“La música es una cosa amplia, sin límites, sin fronteras, sin banderas”

(León Gieco)

*“La música tiene poder sanador. Tiene la habilidad de sacar a la gente
de sí misma durante unas horas”*

(Elton John)

“Sin música la vida sería un error”

(Friedrich Nietzsche)

Prozesu luze honetan zehar

babesa eta laguntza eman didaten guztiei

LABURPENA

Gratu Amaierako Lan honetan Haur Hezkuntzan musika lantzeko proposamen didaktiko bat planteatzen da. Entzumen-musikalak zein musika hezkuntzak 0-6 urte bitarteko etapan duen garrantzia eta umeen garapenean izan ditzaken onurak azaltzen dira. Lan honen bidez, planteatutako ekintza desberdinekin lortu nahi dena musika Haur Hezkuntzako geletara iristea da. Bertan, "Pedro eta Otsoa" ipuin musikalaren egilea ezagutzeaz gain, ipuinean agertzen diren musika-instrumentuak zein kontzeptu musikalak landuko dira planteatu diren ariketen bitartez.

Hitz-gakoak: Ipuin musikala, musika-instrumentuak, Musika, Haur Hezkuntza, proposamen didaktikoa, entzuketa-aktiboa.

RESUMEN

En este trabajo de Fin de Grado se plantea una propuesta didáctica para trabajar la música en Educación Infantil. Se explica la importancia de la audición musical y de la educación musical en la etapa de 0 a 6 años y sus beneficios en el desarrollo de los niños. A través de este trabajo, lo que se pretende con las diferentes acciones planteadas es que la música llegue a las aulas de Educación Infantil. En ella, además de conocer al autor del cuento musical "Pedro y El Lobo", se trabajarán tanto los instrumentos musicales que aparecerán en el cuento como los conceptos musicales mediante las actividades propuestas.

Palabras clave: Cuento musical, instrumentos musicales, Música, Educación Infantil, propuesta didáctica, escucha activa.

ABSTRACT

For this final project, we have created a didactic proposal to work with music in Early Childhood Education. We explain the importance of music listening and music education from 0 to 6 years old and its benefits for children's development. Through this work, the aim of the different actions proposed is to bring music to the Early Childhood Education classrooms. In addition, to getting to know the author of the musical story "Pedro eta Otsoa", the students will work on the musical instruments that appear in the story as well as the musical concepts through the proposed activities.

Key words: Musical story, musical instruments, Music, Early Childhood Education, didactic proposal, active listening.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	11
2. JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA	13
3. GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURUAK	15
4. MARKO TEORIKOA: MUSIKA HEZKUNTZA	17
4.1. Musika hezkuntzaren oinarri pedagogikoak	17
4.1.1. Musika hezkuntzaren historia	17
4.1.2. XX. mendeko musika irakaskuntzaren metodo aktiboak	22
4.1.3. Musika Espainiako gaur egungo hezkuntza sisteman	29
4.1.4. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Haur Hezkuntzaren musika-curriculum	30
4.2. Musika hezkuntzaren oinarri psikologikoak	32
4.2.1. Musika ikastearen onurak	32
4.2.2. Musika ikastearen etapak 0-6 urte bitartean	33
4.2.3. Musika hizkuntza	36
4.2.4. Entzumen musikala	37
4.2.5. Mugimendua eta dantza	38
4.2.6. Ahotsa eta kantua	39
4.2.7. Musika-tresnak	39
5. MARKO ENPIRIKOA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA	41
5.1. Sarrera	41
5.2. Proposamen didaktikoaren justifikazioa	41

5.3. Proposamen didaktikoaren helburuak	43
5.4. Proposamen didaktikoan landutako edukiak	44
5.5. Proposamen didaktikoaren orientabide metodologikoak	44
5.5.1. Planteamendu metodologiko orokorra	44
5.5.2. Jarduera-zerrenda	46
5.5.3. Baliabideak / Materialak	48
5.5.4. Espazioa / Denbora	49
5.6. Proposamen didaktikoan erabilitako ebaluazioa	49
5.6.1. Ebaluazio-motak	49
5.6.2. Ebaluazio-tresnak	50
5.6.3. Ebaluazio-irizpideak	51
6. AZKEN BALORAZIOA ETA ONDORIOAK	51
7. BIBLIOGRAFIA	53
8. ERANSKINAK	59

1. SARRERA

Gratu Amaierako Lan honetan, Haur Hezkuntzan musika lantzeko erabilgarria izan daitekeen baliabide bat sortu dugu. Bertan, haurrak entzumen musikala lantzen hasteko, ipuin musikal bat proposatu dugu, non bere gain hainbat jarduera biltzen dituen.

Hasteko, musika hezkuntzaren garrantzia azpimarratuko dugu, oinarri pedagogikoak zein psikologikoak bereiziz. Musika hezkuntzak historian (Antzinaroa, Errenazimendua, Barrokoa, etab.) izan duen garrantzia aipatuzetik, pixkanaka XX. mendera hurbilduko gara, lehenik eta behin Espainia mailan kokatuz eta, ondoren, Euskal Herrian, entzumen-hezkuntzan lurra hartuz. Horretaz gain, hainbat adituen metodologiak landuko ditugu eta musika ikastearen etapa desberdinak azalduko ditugu 0-6 urte bitartean. Are gehiago, musika ikasteak dakartzan onurak ere aztertuko ditugu.

Bestalde, lan honen helburu nagusia azalduko dugu eta horretarako, proposamen didaktikoan murgilduko gara. Kasu honetan, ipuin musikal bat eta honekin zerikusia duten helburuak planteatuko ditugu. Horretaz gain, proposamen honen bitartez ere eduki musikal batzuk landuko ditugu.

Metodologia aldetik, ipuin horrekin harremanetan dagoen jarduera-zerrenda bat eskainiko dugu musika Haur Hezkuntzako 2.zikloan landu ahal izateko, hau da, 5-6 urte bitarteko hurrekin. Bertan, jarduerak banan-banan azalduko ditugu bakoitzari dagokion baliabidea/materiala eta espazioa/denbora zein izango litzatekeen adieraziz. Bukatzeko, erabilitako ebaluazioa zein izan den adieraziko dugu, bere gain ebaluazio-motak, ebaluazio-tresnak eta ebaluazio-irizpideak harturik.

Azkenik, azken balorazioa eta ondorioak aipatuko ditugu. Bertan, proposamenarekin bukatu eta gero, hausnarketa sakon bat egin dugu izan litzatekeenaren inguruan. Ezin izan baitugu praktikara eraman. Gauzak horrela, ez dugu aukerarik izan eskolaren batek planteamenduari buruzko feedback-a emateko. Bukatzeko, laguntza eskaini digutenei eskerrak ematen amaitzen dugu, haiek gabe ez litzatekeelako berdina izango.

2. JUSTIFIKAZIOA, GAIAREN GARRANTZIA ETA ARLOAREN EGOERA

Gratu Amaierako Lan honetan ipuin sinfoniko bati buruzko proposamen didaktikoa egitea erabaki dugu, eskoletan musikari ez zaiolako behar besteko garrantzia ematen. Are gehiago, ikasgeletan musikarekin zerikusia duten baliabideak gutxi direla aipatzea ezinbestekoa da ere.

Gaur egun, musikak duen inportantzia garrantzi handikoa da, nahiz eta oraindik hezkuntza-planetan aitortuta ez egon. Jaiotze-unetik, umeei musika oso gertutik bizi dute; izan ere, eskuragarri izaten dituzten jostailu denek musika soinuak sortzen dituzte. Horretaz gain, edozein momentutan musika lantzeko zein entzuteko aukera daukate; hala nola, ikastetxean ikasitako abestiak gurasoei erakusten, eskolako ospakizunetarako ikasi berri duten abestiak entzuten, telesaila batzuen abestiak kantatzen eta abar. Hortaz, esan daiteke hurrek musikarekiko duten kontzeptua ikasten zein entzuten dituzten abestietan laburbiltzen dena.

Bestetik, aurretik aipatu bezala, musikari eskoletan ez zaio bere benetako balioa ematen. Jarduera artistikoei, eskolako ordutegiaren barruan ordu gutxi eskaintzen zaizkio, kontuan hartu gabe musikak duen garrantzia. Gainera, esan beharra dago Europako hainbat herrialdeetan, musikari eskola-ordu asko eskaintzen zaizkiola duen inportantzia jabetu direlako. Bertan, musikari beste ikasgai batzuei bezalako errekonozimendua ematen zaio. Beraz, Espainian, eta gure kasuan, Euskal Herrian, musikak beste ikasgaien baldintza berdinetan egoteko borrokatu beharko luke. Behingoz, mundua ohartu dadila musikaren bidez gauza asko lortu ditzakegula.

Kasu honetan, guri gehien interesatzen zaigun arloa entzumenarena da. Azken horrek ez du soilik balio musikarekin zerikusia duten gauzak ikasteko. Azken finean, entzumena beste ikasgai batzuk bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da. Honen bitartez, hau da, entzumenaren bitartez, hurrek hitz egiten eta idazten ikasi dezakete. Entzumenak ekintza zentralak dira baina ez soilik Haur Hezkuntzako musika hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Musika Eskoletan ere nahitaezkoak dira. Entzumena lantzea oso garrantzitsua da eta gainera, horren barnean erabiltzen den teknika erabiliena ipuin musikalak dira. Horiek, Haur zein Lehen Hezkuntzan asko erabiltzen dira, entzumena soilik lantzen ez. Baizik eta literaturarekin zerikusia duten gauzak lantzeko ere baliagarria izaten da.

Hori dela eta, entzumenarekiko gabezia nahiko ikusi ditugunez, gure proposamen didaktikoa 5-6 urte bitarteko haurrentzako izan daitekeen ipuin musikal batean oinarritua izan da. Horretaz gain, ipuinarekin landu daitezkeen hainbat jarduera ere proposatzen ditugu. Bertan, istorioan zehar agertzen diren instrumentu zein pertsonaiekin jarduera desberdinak egingo dira. Era berean, geografia zein pentsamenduarekin zerikusia duten jarduerak ere burutuko dira. Gainera, obraren egilea ezagutzeaz gain, planteamendu didaktiko honetan hainbat kontzeptu musikal landuak izango dira. Esate baterako, mugimendua, gorputz adierazpena zein hizkuntza musikala.

3. GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan hau burutzearen helburuak hainbat izan dira. Hona hemen planteatutako helburuak:

- Musikarekiko interesa piztea, arte, zientzia eta hizkuntza gisa.
- Hezkuntza orokorrean musika hezkuntzaren oinarri pedagogikoak aztertzea.
- Musika hezkuntzaren oinarri psikologikoak deskribatzea eta ikustea, hezkuntza orokorraren munduan.
- Haur Hezkuntzan musikaren garrantzia edo ikasleen irakas-ikasteko prozesuak duen inportantzia, musika ikastearen onurak eta eragin positiboak azpimarratzea.
- Haur Hezkuntzan entzumen musikalak duen garrantzia nabarmentzea ardatz nagusi bezala.
- Proposamen didaktiko bat diseinatzea, non ipuin sinfoniko baten bidez, musikaren elementu batzuk landuko diren.

4. MARKO TEORIKOA: MUSIKA HEZKUNTZA

4.1. MUSIKA HEZKUNTZAREN OINARRI PEDAGOGIKOAK

4.1.1. Musika hezkuntzaren historia

A. Antzinaroa

Antzinaroan, musika bere balio hezitzaile handiagatik preziatua zen. Gizakiak, antzina-antzinatik, ahotsa erabili du eta bere gorputzaren, oinen, eskuen eta abarren soinu-aukerak deskubritu ditu, bere kantuei erritmikoki lagundu ahal izateko; eta ziurrenik, beste musika-tresna batzuk ere (harriak, hezurak, etab.) erabiliko ditu, haiekin soinuak sortzeko gai dela ohartzen denean.

Lehenik, Egiptoren kasua daukagu. Pilar González Serrano-k (1994) adierazi duen moduan, Egiptoko musikologia ikasketen hasiera Egiptologiarekin lotzen da. Garai hartan erosi ziren Louvren utzitako hainbat musika-tresna. Ondoren, Mariettek egindako lana azpimarratu behar da, honek egin baitzituen Egiptoko antzinako orkestra eta soziologiaren eboluzioari buruzko lehen ikasketak.

Antzinako zibilizazio guztientzat, musikak funtzio sozial bat bete zuen, baina Grezian, gainera, funtzio hezitzaile bat izan zuen, bere praktika gizartearen baitan zabaltzeko eta hezkuntza sisteman sartzeko beharra ikusi baitzuten. Gainera, garaiko filosofoen eskola guztiak bat datoz musikaren garrantzian, eta gomendioak egiten dituzte txiki-txikitatik praktikatzeko beharrari buruz (Pascual Mejía, 2006).

Bestetik, esan beharra dago antzinaroan musikak ez zuela soilik Grezian garrantzia izan. Beste hainbat herritan ere, musika garrantzitsua izan zen. Mesopotamiaren kasuan, Gabriel Sánchez Muñoz-ek (2018) adierazi bezala, musika mesopotamiarrek bere jainkoarekin harremanetan jartzeko erabili zuten tresna bat izan zen, beren jarrera erakusteko eta eguneroko ezbeharren aurrean babesa eskatzeko.

Azkenik, Erromaren kasua dago. Jorge Velazco-k (1977) esan bezala, Erromak bere bilakaera historiko liluragarriaren bidez, musika sortu zuen. Gainera, erromatarrek, grekoek eraginda, eta eragin etrusko eta ekialdekoarekiko joera dutenek, arrastoa galdu duen baina gure musikan presente dagoen arte musikal bat garatu zuten.

B. Erdi aroa (V. – XV. m.)

Korrante neoplatonikoek helarazitako herentzia grekoaren ondorioz, Erdi Aroan musikak berriz ere garrantzi berezia hartu zuen. Arte bezala, besteak baino gehiago zela uste zen, eta diziplina zientifiko bezala oso baloratua zen Quadriviumaren zati bezala (Aritmetika, Musika, Astronomia eta Geometria) eskola monastikoetan. Era berean, Otto Willmann-ek (1907) adierazi bezala, Triviumak ere garrantzia izan zuen. Esan daiteke, bere gain Gramatika, Erretorika eta Dialektika hartzen zituela, beste hitz batzuetan esanda, hizkuntzaren, oratoriaren eta logikaren zientziak, arte sermozinalak edo hizkuntzaren ikasketak bezala hobeto ezagutzen direnak. Horretaz gain, Triviumaren helburuetako bat adimena entrenatzea zen, ezagutza eman ordez.

Aro honetan ere, aipatu beharra dago unibertsitateak agertu zirela eta berarekin, musika-ikasketak. Hau da, unibertsitateetan musika diziplina liberal moduan gehitu zen, baina gutxinaka unibertsitateko hainbat jardueretan behar besteko garrantzia hartzen joan zen; hala nola inbestidurak, meza oroigarriak, etab. Horrekin batera, interpretazio musikal ez hain formala eta askotarikoena gailenduz joan zen bere adierazpenetan: kantua, dantza eta musika instrumentala. Unibertsitateko ikasleek, gainera, musika-heziketa korala jaso zezaketen katedral-eskoletan (Valles del Pozo, 2009).

C. Errenazimendua (XV. – XVI. m.)

Errenazimendua ere musikan islatzen da, baina beste arteekin alderatuz atzerapen pixka batekin (Pascual Mejía, 2006). Are gehiago, Errenazimenduan Humanismoak hezkuntzaren orientazio berri bat ekarri zuen. Gizakiaren garapen integrala bilatzen zuen ideal hezitzaile greziarra berpiztu zen eta gizon errenazentistaren formazio prozesuan, musikak beste behin ere leku garrantzitsu bat betetzen zuen. Aipatu beharra dago, Humanismoak era itzu batean uste zuela mugimendu erreformistak gizonak iluntasunetik eta sineskerietatik libratuko zituela. XVI. mendeko musikahezkuntzari dagokionez, Erreformarekin piztu ziren erlijio-borrokek eragin handiagoa izan zuten, ziurrenik, pentsalari humanisten ideia laiko eta altruistek baino (Valles del Pozo, 2009).

Martin Lutero zein Juan Calvino teologoek kantua erlijio-gurtzarako nahitaezkoa kontsideratzen zuten. Luterok “Jainkoaren hitza” ezarri zuen “zerbitzuaren” elementu nagusitzat, eta arauak eman zituen maitinak eta eguneko bezperak ospatzeko Idazkera

Sakratua irakurriz eta homilian azalduz. Luterok, dena dela, ez zuen inoiz meza-modu zurrun bat ezarri nahi izan, komunitate indibidualei askatasun handia utzi baitzien. "Jainkoaren hitza"-ren iragarpena zen ospakizun ororen oinarria eta muina. Eta iragarpenarekin, kantua (López-Calo, 1984). Horretaz gain, Luterorentzat musika Jainkoaren mesede eta opari bat da, gizakiaren sufrimendua arindu, bere espiritua goratu eta ongira gidatzen duen jarduera bat delako. Errenazimenduan musika ez zen elizara murrizten, baizik eta, egunero eskoletan eta etxeetan praktikatzen zen; izan ere, eliza, eskola eta komunitateen artean harreman estu bat existitzen zen.

Hala ere, Calvinok, kantuaren balio eraikitzaileak onartuta ere, jarrera murriztailea hartu zuen, elizan bakarrik erabiltzea gomendatuz, inoiz ez etxeko entretenimendu gisa (Valles del Pozo, 2009).

D. Barrokoa (XVII. – XVIII. m.)

Emilio Casares Rodicio-k (1983) adierazi bezala, Barrokoa musikaren garairik loriatsuena da, non Europako kulturaren protagonismo handia hartu zuen; nahikoa da Monteverdi, Vivaldi, Bach eta Haendel izenak edo opera, sonata edo kontzertuak aipatzea, garai honetan musikak izandako ekarpena erakusteko.

Musikaren garai barrokoa XVI. mendearen amaieratik XVIII. mendearen erdialdera artekoa da, eta bertan, batasun estetiko eta formal argia dago. Barrokoa errenazentisten aurka zeuden komunikabide formal batzuetatik abiatuta garatu zen.

Bestetik, Juan Amos Comeniok Barrokoan izandako garrantzia aipatzea nahitaezkoa da. Juan Amos Comenio pedagogiaren aita bezala ezagutua da, eta, are gehiago, esan beharra dago teologoa eta filosofoa ere izan zela. Buenaventura Delgado-k (2004) adierazi bezala, Comeniok uste zuen bere garaiko gizartea ustelduta zegoela epikureismoagatik, idolatriagatik, kainismoagatik, erlijio-arduragabekeriagatik eta beste hainbat gauzengatik. Are gehiago, bere ustez ustelkeria hain zen erabatekoa, filosofiaren, erlijioaren eta politikaren erreforma eskatzen zuela.

Kristau munduan gertatu zen hausturak Comeniorengan kontzilioarekiko irtenbide bat bilatzea eragin zuen bere *De rerum emendatione consultatio catholica* lanean. Gainera, Comeniok uste zuenez bilatu nahi zen irtenbidea giza generoa eskola, eliza, politika eta indarkeria ororen aniztasunetik askatzearena zela, ekumenikoen batzarrerara jo behar zela

uste zuen, egiazko eta benetako erreforma bat aurkitzeko asmoz, itxurazkoa eta ergela ez zen bat bilatu beharrean.

Aurretik aipatutakoa ez zen Comeniok egindako gauza bakarra. Horretaz gain, Comeniok eskoletako irakaskuntza asko eta gogotsu kritikatu du. Bere iritziz, berbalista, helburu eta programarik gabea eta metodo pedagogiko basatiak erabiltzen dituzten maisuak dituela dio.

E. Klasizismoa (XVIII. m.)

Emilio Casares Rodicio-k (1983) adierazi bezala, Klasizismoa errealitatearen perfektzio formalaren ideia adierazi nahi duen aldia da; hau da, mundua eder eta perfektutzat hartzeko joera du eta artearen bidez perfektzioaren, lasaitasunaren eta idealaren zentzua transmititzeko joera du. Aldi honetan, Mozart eta Haydn agertzen dira. Gainera, musikak garrantzi handia hartu zuen eta doinu herrikoia jarraitu beharreko eredu bat izaten hasi zen.

Mozart eta Haydn aparte, Jean-Jacques Rousseau filosofoaren garaia ere bada. María José Valles del Pozo-k (2009) adierazi bezala, Rousseauk arte pasibo gisa, musikaren jatorrizko izaeran sinisten zuen. Bere *Emile ou L'éducation* lanean, musika helburu hezitzaileekin erabiltzea defendatu zuen, norbanakoaren psikologian eta sozializazioan dituen ondorio onuragarriengatik. Horretaz gain, Rousseauk gauza gehiago defendatzen zituen, esate baterako, musika irakurri eta idatzi aurreko entzumen-esperientziak eta haurren sormenaren lana. Rousseauen iritziz, naturak kantua eta melodia inspiratzen ditu. Horien bidez, gizakiak pasioak eta sentimenduak adierazteko aukera du. Armonia, berriz, ez da natura imitatzen duen elementu horietako bat, beraz, osagarri bezala hartua da (Fubini, 1997: 206-207).

Horretaz gain, Rousseauk irakaskuntza-eredu bat planteatu zuen bere garaian arrakasta askorik izan ez zuena, baina, ondorengoengan oinarri izan zen (Valles del Pozo, 2009).

Klasizismoarekin bukatzeko, komenigarria da kontserbatorioen inguruko informazioa ere aipatzea. *¿Y eso de "conservatorio"? El origen del término* (2020) artikuluan jasotzen den bezala, "kontserbatorio" hitzak, jatorrian, "Asilo", "Albericio" eta "umezurztegi" esan nahi du. Italian, hori da lehenengo kontserbatorioak izan zirenak, hau da, gurasorik gabeko gazteak kontserbatzen ziren lekuak. Bertan, irakurtzen eta

idazten irakasteaz gain, lanbideren bat emateko modua bilatzen zen. Are gehiago, jarrera berezia zuten haiei musika hezkuntza ere irakasten zitzairen. Horren guztiaren adibide Veneziako Ospedale della Pietà daukagu. Pietà musika kontserbatorio bat ere izan zen. Bertara, umezurtz gazteak abestera eta musika-tresnak jotzen abestera bidaltzen zituzten (Instituto Provincial de la Infancia "Santa Maria della Pietà", 1346). Horretaz gain, esan beharra dago Vivaldi bezalako musikagile ospetsuek ematen zizkietela klaseak. XVIII. mendetik aurrera hasi ziren ostatuak musika irakasteko erakunde bihurtzen.

F. Erromantizismoa (XIX. m.)

Erromantizismoa musikaren historiaren garai garrantzitsuenetzat hartu izan da betidanik. Gainera, historikoki Erromantizismoan hiru garai bereizten dira: 1. Erromantizismoa, 1820 inguruan sortu eta 1848ko burgesen iraultzekin amaitzen dena; 2. Erromantizismoa, hirurogeita hamarreko hamarkadaraino hedatzen dena, eta, azkenik, Posterromantizismoa, Mahlerren heriotzarekin amaitzen dena (Casares Rodicio, 1983).

Erromantizismoan Johann Heinrich Pestalozziarekin egiten dugu topo. Pestalozzi Suitzako pedagogo izateaz gain, pedagogia tradizionalaren erreformatzailea izan zen, eta, irakasleen formakuntzaz arduratu zen. Horretaz gain, Michel Soëtard-ek (1997) adierazi bezala, Pestalozzi gure historiarako garai erabakigarri bat igaro zuen: modernitatera sartzearena. Baina, aldi berean, arrisku guztiak bere gain hartu zituen, eta, azkenean, hezkuntzari eta ekintza pedagogikoari eman zion haurra mundu berrian sartzeko lana.

Are gehiago, Pestalozzi bere institutuetan printzipio metodologiko batzuk ezarri zituen. Bertan, irakasle bakoitzari bere ekintza pedagogikoa pentsatuta egon zedin eskatzen zion. Era horretan, haurrak, ikaskuntzarako bidean, une jakin batean bere esku artean bitarteko horiek hartu zitzaizkion eta bere kabuz bideari jarrai ziezaion.

Bestetik, Friedrich Froebel pedagogoak ere Erromantizismoan garrantzia izan zuen. Egile honen kasuan, Michel Soëtard-ek (2013) islatu bezala, Friedrich Froebel ikaskuntza modernoa markatu zuen pedagogoetako bat izan zen. Froebelek institutu propio bat sortu nahi zuen, eta 1813.urtean bere nahia bete zuen. *Instituto general*

alemán de educación sortzen du eta bere bizi-proiektua, orain, bere hezkuntza-proiektuarekin identifikatzen da.

Bere lanari oinarri filosofiko sendo bat emateko nahiaz, Froebel 1826. urtean argitaratutako lan teoriko handi baten idazketan murgilduko da: *La educación del hombre*. Azken hau, hainbat partetan garatzen da: haurraren heziketa jaiotza eta lehenengo urteetan; haur hezkuntza; familia eta eskolaren arteko harremana, etab. Horretan guztian, hezkuntzak existentziaren mugimendu sakonari jarraitu behar dio, askatasunean, aniztasunean eta batasunean bizi denari.

4.1.2. XX. mendeko musika irakaskuntzaren metodo aktiboak

XX. mendea bereziki esanguratsua da musika hezkuntzari dagokionez, baina baita bere bilakaeran eragina duten hainbat faktore ere. Eskola-ingurunearekin zuzenean lotuta ez dagoen arren, mendearen hasieran musika hezkuntzaren garapenean eragin erabakigarria izan zuten elementu batzuk nabarmendu behar dira. Baina, ez soilik irakaskuntzan aplikatzeko berehalako balio instrumentala zutelako, baizik eta eskolaz kanpoko gizarte-esparruak hezkuntza-zereginen inplikatzek dakarren aurrerapen handiagatik, musikan hain zuzen ere (Valles del Pozo, 2009).

XIX. mendearen amaieran eta XX.aren hasieran, pedagogia berritzeko prozesu garrantzitsu bat gertatu zen "Eskola Berriak" sortuz, horrela, musika hezkuntzak gizakia bere osotasunean har zezan, aktiboa izan zedin eta herritar guztiei zuzenduta egon zedin (Pascual Mejía, 2006). Are gehiago, Maravillas Díaz Gómez-ek (2005) aipatu bezala, *Eskola Berriaren* sorkuntzarekin, metodoen sortzaileek musikari haien hezkuntza-sistemen barruan leku nabarmen bat uzten die. Haien artean, Montessorik garrantzi handia du musikarengatik erakutsitako ardura eta interesa direla eta. Gainera, Montessorik hainbat orri idatzi zituen musika eta haurraren arteko erlazioari buruz, eta nola erabili daitekeen musika hurrenganako irakaskuntzan.

Musika hezkuntza modernoaren lorpen garrantzitsuenetako bat, musika-estilo ezberdinak ikasgelan barneratzea izan da. Mendebaldeko musika akademikoko lan tradizionaleri, hasiera batean, herri generoetako klasikoak gehitu zitzaizkien (jazz, rock, pop) baita musika indigena askotarikoak ere, antzinako kalitatearen irizpideari eutsiz.

Gaur egun, ordea, musika komertzialak leku nahiko handia okupatzen du nerabeen bizitzan eta, hori dela eta, eskolan ere integratu egiten dira (Valles del Pozo, 2009).

XX. mendearen bigarren erdian, John Paynter eta Murray Schafer bezalako pedagogoeek soinua eta zarata musika-adierazpide gisa hartzen dituzte, grafia ez-konbentzionalak erabiltzen dituzte eta musika-sormenaren garapenean tematzearen garrantzia adierazten dute (Pascual Mejía, 2006).

Atal honetan, XX. mendeko metodo aktiboak azalduko ditugu, non hiru talde desberdinetan banatzen diren. Lehenengo taldeari dagokionez, XX. mendeko lehen erdiko metodoak aipatzen dira. Bigarren multzoan, berriz, XX. mendeko bigarren erdiko metodoak, eta azkenengoan, azken ideiak aipatzen dira.

A. Gaur egungo XX. mendeko lehen erdiko metodo batzuk

- *Emile Jacques Dalcroze (1865-1950)*

Emile Jacques Dalcroze erritmikaren sortzailea da, Ginebrako kontserbatorioan sortu zena eta Europa zein Estatu Batuetatik zabalkundea duena. Metodo honek proposatzen duen hezkuntza erritmikoa adierazpen musikarekin lotzen da, gorputzaren eta entzumenezko hezkuntzaren bitartez.

Erritmika motrizitatearen, pentsatzeko gaitasunaren eta musika-adierazpenaren garapena bultzatzera zuzentzen da. Metodologia hau musikagatik eta musikarentzako hezte da.

Gorputza interpretazio-tresna erritmiko, buruko eta emozional gisa bihurtzea proposatzen da. Are gehiago, gorputza erritmo, melodia, dinamika, armonia eta edozein musika-elementuren adierazgarritzat hartzen du.

Metodo honetan, abiaduratik abiatzen da eta, ondoren, lokomozioa lantzen da, erritmo ezberdin eta espontaneoek iturri garrantzitsu bat bezala oinarrizko mugimenterebetarekin lotuta: irrist egitea, katuka ibiltzea, korrika egitea, igotzea, ibiltzea, salto egitea, patinatzea, etab. (Pascual Mejía, 2006).

- *Zoltan Kodály (1882-1967)*

Zoltan Kodalyren metodoak Dalcrozen metodoko hainbat aspektu erabiltzen ditu, baina beti ere abestiarekin erlazionatuz. Hau da, Kodalyren metodo hau hungariako musika hezkuntzaren oinarria da eta kantua hartzen du abiapuntutzat, eta, zehazki, abesti herrikoia (Brufal Arráez, 2013).

Kodalyrentzat ahotsa lehenengo instrumentua da, eta kantuaren praktika musikajarduera guztiaren oinarria da; izan ere, bertatik eratortzen baita musikako irakaskuntza guztia. Abesti herrikoian oinarritzen da, eta hura haurraren ama-hizkuntza kontsideratzen du.

Kodalyren ustez, kantuaren metodologia etxeetan hasten da, non hurrek abesti zein jolas musikalak ikasten dituzten. Eskolaren kasuan, hurrek belarriz ikasten dituzte abestiak. Horretaz gain, José David Brufal Arráez-ek (2013) aipatu bezala, musika hezkuntza zenbat eta azkarren hasi behar da; lehenengo familian eta ondoren, eskolan. Abesti herrikoia haurraren ama-hizkuntza da eta hitz egiten ikasten duen moduan ikasi behar du.

Hurrek eskolan abestiak belarriz ikasten dituztenez, entonazioak ez du garrantzi handirik. Hau da, soinuaren afinazio absolutua ez da hain garrantzitsua izaten. Izan ere, interbalo ezberdinen arteko erlazioek daukate garrantzi gehiago (Pascual Mejía, 2006).

- *Carl Orff (1895-1982)*

Carl Orff, metodoaren sortzailea, orkestra zuzendaria eta XX. mendeko konpositore alemaniar handienetako bat izan zen. Nazioartean ezaguna da musika hezitzaile gisa eta haurrentzako metodo baten sortzailea da.

Hezkuntza-planteamendua oso aktiboa da; izan ere, oinarriztat hartzen du musika-irakaskuntzarik onena haurrak parte hartzen, interpretatzen eta sortzen duen hura dela.

Carl Orffen hezkuntza-praktikako berrikuntzetako bat gorputza musika-tresnatzat hartzean datza. Gorputz-tresnek edo naturalek soinu-keinuen izena ere jasotzen dute. Soinuak sortzen dituzten eta koordinazio zehatzik behar ez duten gorputzaren

mugimenduen bidez erritmoa heztea ahalbidetzen dute. Ondorengo hauek izango lirateke haietako batzuk: hatzetako klaskadak, txaloak, txaloak belaunean.

Hitzari dagokionez, Carl Orffek erritmoa garatzeko erabiltzen du. Horietako batzuk hitz-serieak, asmakizunak, haurrentzako errimak galdera eta erantzun eran, etab. dira.

Abestiari dagokionez, metodoan agertzen diren melodia gehienak haur eta gazteen abesti herrikoietan eta Europa erdialdeko dantza melodietan oinarritzen dira. Abestiak ostinato erritmiko eta melodikoekin eta gorputzaren mugimenduarekin batera egiten dira.

Bukatzeko, eskola-tresnak metodo honen hedapen handieneko ekarpena dira. Musika irakasteko sortutako instrumentu propio eta originalak dira. Haurrek jotzeko errazak dira, beren kolore eta tinbre atseginengatik erakargarriak. Ikasgelan erabiltzeak berekin dakar ikasleak eskola-orkestra batean parte hartzea. Oinarrizko forma musikalak lantzeko aukera ere ematen dute: oihartzuna, ostinatoa, kanona, lied, galderak eta erantzunak (Pascual Mejía, 2006).

- *Edgar Willems (1890-1978)*

Beste metodo batzuek ez bezala, Willemsen ez du lotzen musika bitarteko ez-musikalekin (koloreak), eta uste du prozedura estramusikalak kaltegarriak direla haurrak arreta galtzea egiten dutelako. Horretaz gain, Edgar Willemsentzat musika-entzumenaren hezkuntzak musikaren-hezkuntzan eta pertsonaren prestakuntzan ezinbesteko garrantzia du (Pascual Mejía, 2006).

Willemsen musika hezkuntza 3 edo 4 urterekin hasia gomendatzen du. Nahiz eta metodoa hezkuntza musikaleko hasierara zuzendu, printzipioak musika hezkuntza osorako baliagarriak izan behar dira (Brufal Arráez, 2013).

Edgar Willemsen izakiaren eta musikaren artean dagoen harreman zuzena ezarri zuen. Horretaz gain, musikaren hiru elementu nagusiak erlazionatzen ditu: erritmoa, melodia eta armonia. Erritmoa entzumen sentzorialitatearekin lotzen du. Gainera, esan beharra dago erritmo hori gerritik behera aurkitzen dela. Melodiak, berriz, afektibitatearekin du zerikusia. Kasu honetan, entzumen afektibitateari egiten dio erreferentzia eta hau, bihotzean egon ohi da. Azkenik, armonia daukagu. Inteligentziarekin jartzen du

harremanetan. Gainera, burmuinarekin erlazionatzeaz gain, azken hau, entzumen adimenari dagokio eta adimenarekin eta ulermenarekin lotura du (Valencia Mendoza, 2015).

B. XX. mendeko bigarren erdiko metodo batzuk

▪ *John Frederick Paynter (1931-2010)*

John Frederick Paynter, jatorri ingeleseko pedagogoa eta 70eko hamarkadako konpositore garaikidea izan zenak, musikaren filosofia berri bat sortu zuen eskoletan. Bere metodoaren helburuetako bat ikaslea konposaketara hurbiltzea da musika garaikidearen ezagutzaren bitartez. Horretaz gain, bere ideia konposizio garaikideak, batez ere esperimentalak, notazio tradizionala gainditzen duten elementu musikalak erabiltzen dituela da, eta, beraz, zeinu, grafia eta baliabide berriak asmatzen dituzte interpretatzeko.

Egile honentzat, soinua isiltasuna ez den guztia da. Melodia, berriz, musikaren ezaugarriarik artifizialena da eta azkenik, erritmoa, progresioaren eta atzeraldiaren bidez kontrolatzen den musika-denboraren fluxua.

Paynter bera da egungo edozein sistemak subjektuak erabat gaitzeko apustua egiten duena, eta horrek sormen-potentziala esnatzea eta estimulatzea dakar, modu indibidualean eta metodo egokiarekin (Cuevas Romero, 2015).

▪ *R. Murray Schafer (1933)*

R. Murray Schafer, jatorri kanadiarreko konpositore eta pedagogoa da. Bere proposamen pedagogikoa ingurune akustikoarekiko kezkan oinarritzen da, "Soinu-paisaia" deitzen baitio. Metodo honen helburua hasiera batetik sorkuntzara joatea da, horrekin maisu-ikaslearen arteko harremanean oinarritzen den berrikuntza pedagogikoa sustatuz.

Egile honen eboluzio pedagogikoa jarraituz, 60ko hamarkadan musika hezkuntzaren jarrera berritzailea garatu zuen eta horrek 5 lan pedagogiko argitaratzera eraman zuen; hala nola *El compositor en el aula* (1965), *Limpieza de oídos* (1967), *El nuevo paisaje sonoro* (1969), *Cuando las palabras cantan* (1970) eta, azkenik, *El rinoceronte en el*

aula (1975). Lan horien bitartez, irakasleei beren idazkien bidez ikasgelan konposatzeko estrategiak ematen zizkien.

Praktikari dagokionez, Schaferren metodoak soinu-ariketak planteatzen ditu, soinuaren eta gizakiaren sentsibilitatea eta kontzientzia garatzeko joera duten horiek. Gainera, era argi eta zehatz batean proposatutako jarduerak dira. Horien garapenean, ikasleei soilik arreta mantentzea eta arretaz entzutea eskatzen zaie; izan ere, garrantzitsuena lortutako emaitzen kalitatea baita (Cuevas Romero, 2015).

C. Azken ideia berritzaile batzuk

- *Keith Swanwick (1931)*

Andrés Sampez Arbeláez-ek (2010) artikuluan islatu bezala, Keith Swanwickek *Música, pensamiento y educación* liburuan, ezberdintasun bat nabarmentzen du instrukzioan eta topaketan oinarritutako hezkuntzen artean.

Keith Swanwickentzat musika gizarte-arte da, beste batzuekin interpretatzen eta besteen saioak entzuten direlako. Gainera, ikasketa-prozesuaren, esperientziaren eta motibazioaren oinarria da. Horretaz gain, esan beharra dago musika ez dela partzela txikietan zatituta geratzen helburu praktikoetarako edo analisirako, baizik eta osotasun gisa aurkezten eta hartzen da testuinguru sozial global baten barruan. Musika-esperientzia ez dago sekuentzialki antolatuta zailtasun-ordenaren arabera (Swanwick, 1991, 143.orr.).

Keith Swanwicken metodo espirala aipatzea ezinbestekoa da. Gustavo Rapozeiro França-k (2018) azaldu bezala, Swanwick eta Tillmanek espiral itxurako eredu bat garatu zuten garapen musikaleko garapenak erakusteko, lau etapan banatzen dena, eta bakoitza bi faseetan. Gainera, espiraleko etapa bakoitza adin-tarte batekin erlazionatua izan zen. Kasu honetan, guri interesatzen zaigu adin tarte Haur Hezkuntzako da, eta, bertan, berriz ere Gustavo Rapozeiro França-k (2018) adierazi bezala, 0-4 urte bitarteko haurrak Materialak deritzon etapan daude. Etapa horretan, soinu-materialei buruzko kontzientzia eta kontrola dute; tinbreak, altuerak, intentsitateak eta iraupenak bereiz ditzaketen soinuak aztertzen dituzte, eta, azkenik, instrumentu eta ahotsen kontrol teknikoa erakusten dute. Are gehiago, Mercé Vilar i Monmany-k (2014) esan bezala, espiraleko lehenengo etapa honetan, hau da, materialak menderatzeko fasean, haurrak

bere soinu-sorkuntza egiteko abileziak bereganatzen ditu. Bestetik, espiraleko bigarren etapa ere interesatzen zaigu, bertan 4-9 urteko haurrak ere sartzen direlako. Beraz, bigarren etapa honek, espresioa deritzonak, Haur Hezkuntzako urte batzuk ere hartzen ditu bere gain. Kasu honetan, berriro ere Gustavo Rapozeiro França-k (2018) adierazi bezala, espresio etapan dagoen 4-9 urte bitarteko haurrak adierazpen-izaeraren kontzientzia eta kontrola erakusten ditu, eta tinbrearekin, altuerarekin, iraupenarekin, tempoarekin, intentsitatearekin, ehundurarekin eta tempoarekin lotutako efektuak eragin ditzake (ikus 2. eranskina).

- *Jos Wuytack (1935)*

Jos Wuytack, Carl Orffen ikaslea izan zen eta bere ondareak jarraitu zituen. Horretaz gain, Orff metodoa ikertzen eta zabaltzen jarraitu du.

Wuytacken arabera, musika lantzeko era bat musika egiten da, eta soinuak, berriz, soinuak egiten. Pedagogo honentzako, musika soinua da eta honek, inguratu egiten gaitu. Bere metodoa soinu-ingurunea eta pertsonarekiko harremana aztertzean oinarritzen da.

Bere irakaskuntza-metodoaren oinarri diren printzipioen artean jolasa dago, haurraren nortasunaren eta alaitasunaren garapena sustatzen duena.

Jos Wuytackek musika-irakaskuntzari egindako ekarpenetako bat musikogramen sorkuntza izan zen, musika grafikoki bistaratzeko tresna gisa. Bertan, pieza edo obra musikal baten parametro musikalak irudikatuta agertzen dira sinbolo batzuen bidez. Horrekin egileak lortu nahi duena ikasleak musika modu ludiko batean lantzea da, musika-balioespena errazteaz gain (Cuevas Romero, 2015).

- *Patricia Shehan Campbell (1950)*

Patricia Shehan Campbellek graduaurreko eta graduondoko ikastaroak irakasten ditu Etnomusikologia eta Musika Hezkuntzako interfazean, non haurrentzako musika, munduko pedagogia musikala eta musikaren inguruko ikerketa etnografikoak eskaintzen dituen. Horretaz gain, Campbell Etnomusikologiako eta Musika Hezkuntzako programen buru izan da, Etnomusikologiako lizentziatura ezarri du, eta, gainera, musikan eta komunitatean ikasketak egin ditu.

Hala ere, aipatu beharra dago Patricia Shehan Campbellek dituen interesak ugariak dira. Haien artean nagusitzen direnak ondorengoak dira: haurtzaro goiztiar eta ertaineko musika, munduko musikaren pedagogia eta mugimenduaren erabilera dira.

Musikaren munduan arrakasta handia duen horietako bat dela esan daiteke ere. Hau da, 150 liburu, kapitulu eta artikulua idatzi ditu hainbat aldizkarietan; hala nola *Canciones en sus cabezas* (1998; 2010), *Música, educación y diversidad: Puente de culturas y comunidades* (2018), *Teaching Music Globally* (2004), *Free to Be Musical: Improvisación grupal en música* (2010), *Music in Childhood* (2018, 4a edición mejorada), etab. (Patricia Shehan Campbell, 2020).

4.1.3. Musika Espainiako gaur egungo hezkuntza sisteman

Atal honetan, azken urte hauetan hezkuntza arloan egon diren hainbat legeek musikaren arloan izandako inplikazio nabarmentzea garrantzitsua dela ikusten dut. **LGE** (Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa, 1970) legean adierazi bezala, batxilergoan ikasgai komunak (ikasle guztiek ikasi beharko dituzte) eta musikarekin zerikusia dutenak, prestakuntza estetikoaren barnean egongo dira. Horren barruan, marrazketa eta musikari arreta berezia emango zaie. Horretaz gain, Arte Ederretako Goi Mailako Eskolak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Dramatikoko Eskolak unibertsitate-hezkuntzan sartuko dira hiru zikloetan, erregelamenduaren bidez ezartzen diren moduan eta baldintzetan.

LOGSE (Ley orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo, 1990) legeri dagokionez, musikaren irakaskuntza gero eta garrantzi gehiago hartzen doa. Gainera, legeak aipatu bezala, musikaren irakaskuntza maisuek emango dute, hau da, dagokien espezialitatearekin. Derrigorrezko bigarren hezkuntzak bi ziklo izango ditu, bakoitza bi ikasturtekoa, eta jakintza-arloen arabera emango da. Gainera, derrigorrezko ezagutza-arloen artean musika egongo da. Horretaz gain, musika eta dantzaren inguruko ikaskuntzak, eskola espezifikokoetan emango dira. Are gehiago, musika eta dantzaren irakaskuntzako erdi-maila egin nahiko duten horiek, sarbide-proba batzuk gainditu beharko dituzte.

LOE (Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación, 2006) legean aipatu bezala, arte-irakaskuntzen helburua da ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta

musikako, dantzako, arte dramatikoko, arte plastikoetako eta diseinuko etorkizuneko profesionalen kualifikazioa bermatzea. Are gehiago, musikako eta dantzako ikasketa profesionalak sei ikasturteko graduan antolatuko dira. LOGSE legean bezala, hemen ere, musikako eta dantzako ikasketa profesionaletan sartzeko, beharrezkoa izango da hezkuntza-administrazioek araututako eta antolatutako sarbide-proba espezifiko bat gainditzea. Horretaz gain, aipatu beharra dago lege honetan musikako eta dantzako goi-mailako irakaskuntza kontserbatorioetan edo musikako eta dantzako goi-mailako eskoletan egingo direla.

Azkenik, **LOMCE** (Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad, 2013) legea daukagu. Lege honek adierazi bezala, erreforma honen helburuetako bat, hezkuntza goiz uzten dutenen tasa murriztea eta hezkuntza-emaitzak hobetzea da. Musikari dagokionez, batxilergoko 2.mailan, hezkuntza-administrazio bakoitzak ezartzen duen araudiaren eta hezkuntza-eskaintzaren programazioaren arabera, ikasleek ikasgai espezifikoek blokeko bi ikasgai ikasiko dituzte gutxienez eta hiru gehienez. Ikasgai espezifiko horien barnean, musika-analisia eta musikaren eta dantzaren historia egongo dira. Musikako edo dantzako ikasketa profesionalak gainditzeak dagokion titulua lortzeko eskubidea emango du. Gainera, musikako edo dantzako ikasketa profesionaletako titulua duten ikasleek, batxiler-titulua lortu ahalko dute. Bukatzeko, esan beharra dago musikako edo dantzako goi-mailako ikasketak amaitu dituzten ikasleek, dagokion espezialitatean musikako edo dantzako goi-mailako titulua lortuko dutela.

4.1.4. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Haur Hezkuntzaren musika-curriculum

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) Haur Hezkuntzako curriculumean, bi esperientzia-eremu nabarmentzen dira: *Nortasunaren Eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua* eta *Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua*. Musikari dagokionez, bigarrena litzateke esparru egokiena. Bertan, haurrek hainbat gaitasun lantzeko aukera dute musika-hizkuntzaren bitartez. Esate baterako, pertzepzioa, erritmoa, kantua, gorputzaren mugimendua, eskuen erabilerak, etab. Are gehiago, esparru horretan musikarekin zerikusia duen helburuen artean nagusitzen dena arte-produkzioetan (musikaren eta gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea da.

Edukiei dagokionez, komunak eta zikloen arabera bereizitakoak ere badaude. Komunen artean, informazioa ulertzeaz gain, buruz ikastea eta adieraztea; elkarlana eta lankidetzaren taldean sustatzea; eta azkenik, gorputza eta emozioak autoerregulatzea izango lirateke. Haur Hezkuntzako 1. zikloari dagokionez, 0-3 urte bitarteko hurrekin landuko liratekeen edukiak, ondorengoak dira: ahotsa deskubritzea eta probatzea; hizkuntzaz kanpoko zeinuak ezagutzea (keinuak); ipuinak eta abestiak arretaz entzutea; norberaren gorputzeko komunikazio gaitasunak deskubritzea eta erabiltzea (mugimendua, tonua, keinua); ahotsaren, norberaren gorputzaren eta musika-tresnen aukerak arakatzea; eta azkenik, soinu desberdinak entzumenaren bitartez bereizten hastea (zarata-isiltasuna, luzea-laburra).

Haur Hezkuntzako 2. zikloan, berriz, 3-6 urte bitarteko haurrentzako inposatuta dauden edukiak garatuago daude. Honako hauek dira: ahoz adierazitako testu errazak ulertzea (abestiak, errimak, asmakizunak); mugimenduaren bitartez espazioaren, erritmoaren eta denboraren nozioak finkatzea; espazioan eta denboran gorputza eta mugimenduak egokitzea; dantzetan eta gorputz-adierazpena erabiltzen den beste hainbat jolas-jardueretan parte hartzea; soinu eta erritmo errazak sortzeko gai izatea melodiak interpretatzeko; inguruko soinuak eta haien ezaugarri eta kontrasteak (zarata-isiltasuna, luzea-laburra) bereiztea; genero zein estilo ugariak obrak entzutea; eta bukatzeko, folkloreakiko interesa izatea.

Haur guztien erritmoak, interesak eta beharrianak ez dira beti berberak. Hori dela eta, metodologia planteatzerako orduan, errespetatu beharko lirateke haurren artean eman daitezkeen desberdintasun horiek eta gainera, ikasteko testuinguruak antolatzean kontuan hartu beharreko gauzak dira. Era berean, haurrek metodologiarekiko jarrera bat izan behar dute. Kasu honetan, haurrek harreman egonkor eta afektiboak izan beharko lituzkete zaintzen eta babesten dituzten pertsonekin ere. Izan ere, harreman horiek izateak ongizateko, konfiantzazko edota segurtasunezko sentimenduak sortzen dituzte.

Ebaluazioaren aldetik, berriz, hezitzaileek haien artean plangintza bat egitean, hasierako ebaluazio bat izan behar dute abiapuntu. Hasierako ebaluazioak, bere gain haur bakoitzaren egoera sozial zein pertsonalari buruzko informazioa bildu behar du. Horretaz gain, behaketa zuzena eta sistematikoa izaten da ebaluazio-tresnarik egokiena Haur Hezkuntzari begira. Musikaren inguruko ebaluazioari dagokionez, haurrak musikaren material, tresna eta tekniken adierazpen-ahalmenak probatu eta esploratzeaz

gain, musikako, gorputz-adierazpeneko eta/edo adierazpen plastikoko ekintza desberdinetan parte-hartzen du, taldean zein banaka. (EE.AA, 2016).

4.2. MUSIKA HEZKUNTZAREN OINARRI PSIKOLOGIKOAK

4.2.1. Musika irakastearen onurak

Musikak hezkuntzarako zein estrategia pedagogiko gisa garrantzi handia du. Hori dela eta, irakaskuntza-ikaskuntzan musika praktikan jartzeko beharra dago modu erraz batean. Are gehiago, aipatu beharra dago musika irakasteak dakartzan ondorioak ugariak izan daitezkeela. Alde batetik, esan daiteke musika gidoi aparta dela irakasteko eta ikasteko prozesuetan. Irakasleak eguneroko zereginetan musika erabiltzen badu, ikasketa-planean proposatutako helburuekin batera, ikaskuntza berriak eskuratzen laguntzen du eta, aldi berean, ezagutza-trebetasunak garatzen laguntzen du: memoria, ulermena eta erantzuteko gaitasuna eta logika.

María Soledad Gómez eta Daniel Carvajal-en ustez (2015), musika irakasleentzako hezkuntza-tresnarik handienetako bat izan da, da eta izango da, dituen onura anitzengatik, bai eta jardueren dinamizazioaren eragile ere, hezkuntza-baliabide honen bidez ikasleen gozamen handia ahalbidetuz. Bestetik, Olga González Mediel-ek (2008) adierazi bezala, musikak arreta, kontzentrazioa, oroimena, tolerantzia, autokontrola, sentsibilitatea eta baita, hizkuntzaren, matematikaren, historiaren eta abarren ikaskuntza ere errazten du. Bestalde, musikagintzak garapen intelektual, afektibo, interpersonal, psikomotor, fisiko eta neurologikoan ere laguntzen du.

Bukatzeko, Natalia Bernabeu eta Andy Golstein-ek (2009) baieztatu egiten dute musikak irudiek baino bilakaera handiagoa dutela, eta gizakia ikusmenean murgilduta dagoen arren, pertsonen oroimenean dituztela egoera emozionalei lotutako soinu-eskema jakin batzuk. Gainera, musika erabiltzen bada, oso ondorio onuragarriak izan ditzake bai gorputzarentzat bai adimenarentzat. Musikak eragiten duen ondorioetako bat da bihotz-erritmoa bizkortu edo moteldu dezakeela pertsonengan (Bolívar Chávez et al., 2018).

4.2.2. Musika ikastearen etapak 0-6 urte bitartean

Musika irakastearen barnean, bi etapa bereizten dira. Lehenengo etapak lehenengo zikloari egiten dio erreferentzia, 0-3 adin tarteari hain zuzen ere. Bestetik, bigarren etapa bat daukagu, eta horrek, berriz, Haur Hezkuntzako bigarren zikloari egiten dio aipu, 3-6 urte bitarteko haurrei (Pascual Mejía, 2006).

A. Lehenengo urtea

Gaur egun egiaztatuta dago entzumena amaren baitan hasten dela; izan ere, entzumena enbrioian garatzen hasten da haurdunaldiaren hamahirugarren astean, eta lau hilabete eta erdira jada funtzionala da. Fetuak mota guztietako soinuak entzun ditzake. Musika, soinua eta erritmoa oso erakargarriak eta garrantzitsuak dira jaioberriarentzat; lehen mugimenduak gorputz-erantzunak dira, soinua edo erritmoa baino lehen. Haurrak musika eta akustikako beste edozein estimulaziori erantzuten dio, posizioa aldatuz eta bere ohiko atsedean egoera aldatuz.

Jaiotzean, haurraren entzumen-aparatua bere organo sentsorialen artean garatuena da, eta guztiz prestatuta dago garunari jasotzen duen informazioaren aberastasuna integratzen hasteko balioko dioten soinu-formei erantzuteko. Haur baten arreta gehien erakartzen duen soinuaren kalitatea tinbrea da.

Lau hilabeteren buruan, haurrak Haur Hezkuntzako lehen zikloa hasten duten unean, mielenizazioa hasten da. Haurra kontsonanteak gehitzen hasten da bere ahotsean (*ba, ga*) eta, pixkanaka, soinu jostalariak, eta sei hilabeteren bueltan iristen da silaba kateatuetara (*da, ga, ba, ga, ba, da*), hitz totalka deituriko fenomeno.

Bosgarren eta seigarren hilabeteak aldera, haurrak beste soinu batzuen lengoaia bereizten du jada, eta soinu berrien aurrean gogotsu agertzen da; sei hilabeteren buruan ere, abestiak antzeman ditzake (Bernal eta Calvo, 2000). Zortzi hilabetetik aurrera, fase ebolutibo garrantzitsu bat hasten da. Musikarekin sentitzen duena adierazten hasiko da, besoak eta gorputzaren goiko alde mugituz musika entzuten duenean. Zortzi hilabeteren buruan, txaloak jotzeko ahalmena dauka, objektuak lurrera botatzen ditu eta erortzean egiten duten soinua entzuten du.

B. 18 hilabete

Adin tarte honetan, mugimendu mota desberdinak areagotzen dituzte: oin bat kulunkatzea, burua okertzea, orpoak igotzea eta jaistea, etab. Musikari dagokionez, oreka eta denboraren zentzua hobetzeaz gain, erritmoa ere hobetuko du. 18 hilabetetik aurrera, haurrak musikako mugimenduak egokitzen hasiko dira. Haurrak, bere gorputzaren erabateko aktibitate batekin, musikarekiko erritmikoki erreazionatuko du. "Bere lehen urtebetetzea igarota, musikarekiko erreakzioak gero eta gehiago aldatzen dira, nahiz eta ez den konpasean mugitzen edo kantatzen. Baina hemezortzi hilabetera litekeena da jada musikagintzaren erritmoa menderatzea, gorputz osoa murtxikatuz eta konpasera jauzi eginez" (Campbell, 2000; 109-110).

Aurrekoaz aparte, adin honetan ere hizkuntza-adierazpena kanturreo edo silaba-kantu espontaneo gisa agertzen da. Haurrek entzuten dituzten abestiak imitatzen dituzte, "desafinatuta" (Aznárez, 1992) antzezten dituzte.

C. 2 urte

Hitz egiten eta behin eta berriz abestiak edo elkarrizketak errepikatzen hasten den garaia da hau. Umearen garuna gorputzarekin fusionatzen hasi da, oinez ibiltzeko, dantzatzeko eta erritmo fisikoaren zentzua eta koordinazioa garatzeko jardueren bidez.

Abestea, pertzepzionatzea eta mugitzea jarduera nagusiak dira. Zentzu erritmikoa eta erantzun motorra ezaugarri bereizgarri eta selektiboa izaten hasten dira, musikaren estimulazioaren aurretik. Ikaskuntza mugimendu eta asoziazio emozional azkarren bidez egiten da. Zentzu erritmikoa eta erantzun motorra aberasten dira. Jostailuetan, filmetan, telebistako iragarkietan entzuten duen musikak erakartzen du. Arreta deitzen diote instrumentuek: panderoak, kanpaitxo metalikoak, triangeluak, etab.

D. 2 urte eta erdi

Adin horretako haurra gai da musika zaratatik bereizteko, eta abestiak ikas ditzake, lehendabizi hitzak, gero zarata, eta azkenik melodia. Haien pertzepzioa eta soinu-adierazpenak oso baldintzatuta daude ludikoagatik. Abestiek eta erritmoek jolasera eta mugimendura bultzatzen dute: abestiekin ohitzen da, letratxo itsaskorrek erabiltzen ditu, panpinei kantinerak abesten dizkie, eta horiek guztiak biltzen ditu.

E. 3 urte

Adierazpenari dagokionez, hainbat ezaugarri aurkitu daitezke. Lehenik eta behin, mugimen-adierazpeneko gaitasunak zehatzagoak dira eta motrizitatea (oinez ibiltzea, salto egitea, korrika egitea) hobeto kontrolatzen dute. Gainera, nolabaiteko sinkronizazio motorra lortzen du, musika bat jarraitzen du mugitzen edo kolpatzen. Hiruzpalau elementuko egitura erritmikoak erreproduzitu ditzake. Abesti txikien intonazioarekin ere erreproduzitu dezake, nahiz eta tonua eta eremua txikia izan, eta perkusio-instrumentuekin esperimentatzea gustatzen zaio. Azkenik, abesti osoak erreproduzitu ditzake, nahiz eta ez dituen behar bezala intonatzen.

Bestetik, pertzepzioaren kasuan, ondo antzematen du musika zati txiki bat, eta praktikatzen saiatzen da. Patroi erritmikoak hautematean, erregulari eta monotonoki erreproduzitzen ditu. Horretaz gain, talde erritmikoekin esperimentatzea gustatzen zaio, eta nahiz eta musika irudien grafismoa ez ezagutu, beltz eta kortxeen balioak bereizten ditu. 3 urteko haurra zenbait melodia simple ezagutzen eta erreproduzitu nahi izaten hasten da.

F. 4 urte

4 urteko adin-tartean, 3 urtekoen egoera bera gertatzen da. Adierazpenari eta pertzepzioari dagokionez, haurraren garapenean ezaugarri desberdinak aurki daitezke. Adierazpenean, alaitasuna eta gozamena erakusten du musikak parte hartzen duen gizarte-harremanetan. Horretaz gain, gorputzaren atal ezberdinetan mugimendua hobetzen du eta ideia eta sentimenduen adierazpena lortzen du. Bere ahotsa gehiago kontrolatzen du eta melodia giroa zorrotzagoa egiten da. Taldean abestiak afinazio apur batekin entonatzearaz gain, esan beharra dago 4 urteko haurrari beste batzuei abestea asko gustatzen zaiela.

Pertzepzioari dagokionez, berriz, intentsitatea eta abiadura nahasten ditu, baina azkarrago eta motelago kontzeptuak bereizten ditu. Ez ditu kontzienteki alderatzen denborak eta zatiak, hau da, zaila egiten zaio intelektualki erreproduzitzea. Horretaz gain, melodia sinpleak identifikatzen hasten da, eta bere entzumen-memoria handitzen du.

G. 5 urte

Adin honetan ere, desberdintasunak daude adierazpen zein pertzepzioaren kasuan. Adierazpenari dagokionez, adin garrantzitsua da haurren musika-jokabidearen bilakaeran, ia bere gorputz-nia eraiki baita. Haurraren garapen motorrak eskuaren edo oinaren mugimenduak musikarekin sinkronizatzeko aukera ematen dio. Bestalde, melodiaren garapenak tonu sinpleak doitasunez erreproduzitzeko aukera ematen dio. Gainera, askok melodia laburrak abestu ditzakete eta abesti asko ezagutu eta estimatzen dituzte. Era berean, soinu gutxirekin oso kanturazak sortzeko gai da. Azkenik, haurra gai da grafia ez-konbentzionaletan adierazitako musika-diktaketak egiteko.

Bestetik, pertzepzioari dagokionez, haurrak musika-arloaren aurrean gai da gaiak finkatzeko, arreta jartzeko eta kontzentratzeko. Hizkuntza musikala onartzen du eta ahotsarekin edo instrumentuekin praktikan jartzen du. Horretaz gain, irudimen musikaleko jarrera handia du.

4.2.3. Musika hizkuntza

Domingo García de la Torre-k (2019) adierazi bezala, musika hizkuntzan soinua, erritmoa, doinua, testura, forma, adierazpena, idazkera musikala eta genero zein estilo musikalak daude.

Soinuari dagokionez, bere ezaugarri guztiekin (tinbrea, intentsitatea, altuera eta iraupena) Haur Hezkuntzan ariketa desberdinak egin daitezke: ikusi, imitatu, identifikatu edo sailkatu. Soinuaren ezaugarriak, bi zikloetan desberdinak dira. Tinbrearen kasuan, soinu-inguruak, ahotsak, gorputz-perkusioak, etab. bereiziko dituzte haurrek. Intentsitateari dagokionez, haurrek intentsitate desberdinak entzungo dituzte ziklo desberdinetan (forte, piano, mezzo forte, aumentando, diminuendo, etab.). Gauza bera gertatzen da altuera zein iraupenarekin. Altuerari erreferentzia eginez, haurrak altua eta baxua kontzeptuak ikasten joango dira. Azkenik, iraupenari dagokionez, haurrak luzea zein laburra terminoak garatzen joango dira.

Erritmoari dagokionez, beltza, kortxea eta zuria landuko dira ariketa gehienetan. Horretaz gain, metrikaren kasuan, 2/4 zein 3/5 konpasak erabiliko dira egingo diren ariketetan. Doinuari dagokionez, haurrak *do eskalaz* baliatuko dira abestiak kantatzeko. Testuraren kasuan, testura monofonikoak eta doinu lagundukoak erabiliko dira.

Bestetik, forma eta adierazpen musikala daukagu. Formari dagokionez, haurrek “egitura karratuko musikak” (4-8-16 konpasez osatutako gaiak) eta forma txikiak (sinplea, errepikakorra eta bitarra) erabiliko dituzte ariketa desberdinetan. Adierazpenari dagokionez, honako abiadura (allegro, adagio, acell. eta rit.) eta intentsitateak (forte, piano, aum. eta dim.) erabiliko dira.

Bukatzeko, esan beharra dago idazkera musikalaren barnean, solfeoa sartzen dela. Azken honen praktika, Haur Hezkuntzako azkenengo urteetan hasten da; izan ere, askoz garrantzitsuagoa da ikasleak musikarekiko duen harreman praktikoa; hala nola, ahozkoa, mugimenduzkoa, musika-tresnen bidezkoa, etab.

4.2.4. Entzumen musikala

Entzumen musikalaren barnean eta Haur Hezkuntzan bereizten diren bi zikloak kontuan izanik, material desberdinak ematen dira.

1. zikloan, entzumen-zentzumenari dagokionez, esan beharra dago haurrak 3-6 hilabete ingururekin musikari erantzuten hasten direla; hau da, alaitu egiten dira, harridura erakusten duten, etab. 18 hilabeterekin, berriz, zentzumenen benetako pizkundera ematen da. Adin-tarte honetan, haurrek ukimenezko, entzumenezko zein mugimenduzko baliabideen bidez ikasten dute. Gainera, entzumen-zentzumena lantzeko beti egiten diren ariketa musikalak lagungarriak izaten dira; adibidez, dantzak, musika-jolasak, musika-ipuinak, etab. Bestetik, musika-ipuina dago, non istorio edo haur ipuinen sonorizazioa den. Horretaz gain, kontuan hartu behar da musika-ipuinaren funtzioetako bat ipuina indartzea dela. Material honekin lortu nahi den gauzatariko bat haurrek musika-tresnen inguruko ezagutza izatea da eta, era berean, erabili ahal izatea.

2. zikloan, berriz, entzumen musikala lantzeko material desberdinak aurkezten dira. Lehenik eta behin, entzumen-afektiboa daukagu, hau da, aditzea. Gutxi gorabehera, 4-5 urte ingurutik aurrera garatzen da, eta hau lantzeko biderik egokiena, entzunaldien, solfeoaren, margolan musikalen, dantzen zein beste hainbat baliabideen bidez da. Musika-entzuketari dagokionez, berriz, haurren entzumen aktiboa lantzeaz gain, musikaren barne-elementuak lantzeko zein aztertzeiko nahia dago. Are gehiago, musika-entzuketarekin beti plastika-mugimendu- edo musika-ariketak egin beharko dira. Esate

baterako, margolanak, idatzizko erantzunak, dantzak, entzuketarekin batera abestea, etab.

Bestetik, musika-margolana ere daukagu entzumen musikala landu ahal izateko. Bertan, musikak iradokitzen duenaren arabera, marrazkiak, irudiak, lerroak, etab. egiten dituzte haurrek eta honekin, sormena, musikarekiko sentsibilitatea, irudimena, etab. lantzeaz gain, musikaren barne-elementuak ere lantzen dira.

Azkenik, musika-diktaketa dago, eta honek, entzuten dena grafikoki adieraztea esan nahi du. Ekintza honen helburu nagusia, haurrek idazkera musikala lantzea da, eta gainera, esan beharra dago 5 urtetik aurrera ekintza honekin zerikusia duten ariketak egiten direla. Are gehiago, komenigarria da jakitea diktaketa guztietan prozedura berdina hartzen dela kontuan. Ondorengo izango litzateke: entzun, errepikatu, barneratu eta azkenik, idatzi (García de la Torre, 2019).

4.2.5. Mugimendua eta dantza

Domingo García de la Torre-ren (2019) hitzetan, Haur Hezkuntzan ezinbestekoa da norberak bere gorputza baloratzea, adierazpen- zein komunikazio-tresna bezala. Are gehiago, atal honetan ere, garrantzitsua izaten da haur bakoitzaren mugimendu-abileziak garatzea, eta, era berean, dantza-bilduma ezberdinak ezagutzeaz gain, interpretatzeko gaitasuna izatea.

1. zikloari dagokionez, haurren jaiotzatik erritmo musikala gizakiaren mugimendu-abileziekin harremanetan dago, izan ere, erantzun musikala da gizakiengan agertzen den lehenengo gauzatariko bat. Esan daiteke erantzun erritmikoen jatorria amaren bihotz-taupadetan dagoela. Haurra hazten doan heinean, hilabete bat duenean gutxi gorabehera, umeak mugimendu eta egoera gustagarriak harremanetan jartzen ditu (zaldi-jolasak gurasoen altzoan eserita, gurasoen besoetan kulunkatzea, etab.). Ondoren, haurrak urtebete inguru duenean, lehenengo urratsak ematen ditu musika- eta mugimendu-sinkronizazioari dagokionez. Azkenik, 1. zikloko azkenengo urteetan, hau da, 2 urtetik aurrera, haurrak garapen bat jaso du eta ondorioz, musika eta mugimenduaren arteko sinkronizazioa hobetzen da. Gorputz- eta musika-adierazpena lantzea oso interesgarria da.

2. zikloari erreferentzia eginez, esan beharra dago haurrak 1.zikloan baino helduagoak direla. Hortaz, ariketak aurrera eramateko orduan aurrerapen txiki bat ikusiko da. Ziklo honetan, haur batzuk, guztiak ez, musika eta mugimendua nahiko ondo sinkronizatzen hastearekin batera, dantzak eta musika-dramatizazioak lantzeko aukera izango dute.

4.2.6. Ahotsa eta kantua

Kantatzea ekintza nahiko korapilatsua da. Orokorrean, kantuaren helburuak Haur Hezkuntzan asko dira. Kasu honetan, lehenik eta behin egin beharko litzatekeena ahotsa ezagutu eta baloratzea izango litzateke. Ondoren, musikaren barne-elementuak lantzea izango litzateke egokiena; hala nola tinbrea, erritmoa, doinua, testura, forma eta adierazpena.

Atal honetan ere, musika-tresnekin gertatzen den moduan, gomendagarria izaten da abesti-bilduma desberdinak ezagutzea eta interpretatzea. Are gehiago, pauso batzuk hartu behar dira kontuan abestiaren irakas-ikasteko prozesuan. Lehenik eta behin, irakasleak haurrei ikasteko moduan errazteko, abestu egingo du mimoz, mugimenduz zein erritmoz. Horretaz gain, irakas-ikasteko prozesuaren lehenengo fasean, doinurik gabe abestuko da, geroago doinuaren bidez landu ahal izateko. Bertan, helburu nagusietako bat haurra abestia buruz ikasteko kapaza izaten lortzea da.

Haur-kantutegiari dagokionez, berriz, ezaugarriak 1. eta 2. zikloari begira ezberdinak izango dira. 1. zikloari begira, hurrekin lantzen diren kantu-motak gehienbat hitzezko-kantak (doinurik gabeko abestiak eta erritmoa lantzekoak) eta mimo-kantak (keinuz laguntzeko abestiak) dira. 2. zikloan, aldiz, mugimendu-kantek (dantzatzekoak, dramatizatzeak, etab.) aparte, helburu musikalekoak (erritmo zehatzen bat lantzeko abestiak) ere lantzen dira (García de la Torre, 2019).

4.2.7. Musika-tresnak

Musika-tresnekin aurrera eraman daitezkeen ariketak ugariak dira. Baina, ariketekin hasi aurretik, komenigarria da hainbat gauza aintzat hartzea. Interesgarria izaten da erreperitorio ezberdinak egiteaz eta antolatzeaz gain, kalitatezko musika-tresnak erabiltzea ikasgelan jostailuak erabili beharrean.

Aurretik esan bezala, edozein musika-tresnekin lantzeko ariketak ugariak dira. Horretaz gain, 1. zikloari eta 2. zikloari begira, haurren zailtasun eta garapen mailaren arabera, jarduerak nolanhazi ere pixka bat ezberdinagoak izango dira. Ariketak ezberdinak izateaz gain, musika-tresnak ere desberdinak izan daitezke. Gorputz perkusioaren kasuan, 1. zikloan, hurrek urtebete dutelarik, eskuak erabiltzen dituzte soinua sortzeko: txaloak emanaz, bi eskuekin batera mahai gainean jotzen eta bi eskuekin ere, lurtean eserita eta zoruan jotzen. Belaunekin ere, gutxi gorabehera urtebeterekin hasi daitezke soinua sortzen; esate baterako, bi eskuekin belaunetan jotzen. 2. zikloan, berriz, hurrek hatzak zein oinak erabil ditzakete. Kasu horretan, bi eskuetako hatz bizkorrak elkartu ditzakete, elkar joz soinua ateratzeko. Jauziak, aldiz, bi oinekin batera egin ditzakete.

Eskolako perkusioaren kasuan, berriz, 1. zikloan hurrek erabiltzen dituzten musika-tresnak desberdinak dira 2. ziklokoekin alderatuz. Hasieran esan bezala, haurren adinaren arabera zailtasun batzuk agertu daitezke. Hori dela eta, normala izaten da 1. zikloan materialen murrizketa txiki bat egotea. Horretaz gain, eskola perkusioaren barruan musika tresna mota batzuk gehitu daitezke. Metalezko musika tresnetan txintxirrinak eta kaskabiloak nabarmentzen dira. Zurezkoetan, klabeak, eta azkenik, mintzezko musika tresnetan panderoa nagusitzen da.

Musika-tresna profesionalak, gehienetan 2. zikloko azkenengo urteetan lantzen hasten dira eta horien praktika, berriz, Lehen eta Bigarren Hezkuntzara zuzenduta egoten da. Hori dela eta, musika-tresna hauen praktika ez da Haur Hezkuntzan burutzen, soilik ikusi eta entzun egiten dituzte.

Laburbilduz, 1. zikloan ezinbestekoa izaten da musika-tresna bat lehendabizi ikustean, musika-tresna hori ikustea soinua nola sortzen den jakiteko, musika-tresna entzun (bideo bidez, baina zuzenean entzuteko aukera badago hobe) eta, azkenik, musika-tresna manipulatu. Pixkanaka ziklo honetan, musika-tresnen inguruko ezagutza bat dutenean, partiturarik gabe imitazioak eta interpretazioak egiten has daitezke ikasleak. 2. zikloan, berriz, partiturarik gabe imitazioak, interpretazioak eta inprobisazioak egiten hasteaz gain, ikasleak 5 urtetik aurrera, partitura sinpleak interpretatzen eta konposatzen has daitezke. Are gehiago, musika-tresnen teknika ikusten joan daitezke, zuzeneko kontzertuetara joateaz aparte (García de la Torre, 2019).

5. MARKO ENPIRIKOA: PROPOSAMEN DIDAKTIKOA

5.1. SARRERA

Marko enpirikoa izena duen atal honetan, izenburuak dioen bezala, proposamen didaktiko bat eramango da aurrera. Kasu honetan, proposamen didaktikoa ipuin musikalaren ingurukoa izango da, eta gai hori lantzeko ariketa desberdinak planteatuko zaizkie ikasleei. Ipuina “Pedro eta Otsa” (Op. 67) da. Sergei Prokofiev idazle errusiarraren ipuin sinfoniko bat da, 1936. urtean konposatua.

GrAL-eko atal honetan, lehenik eta behin, proposamen didaktiko hau aukeratzearen arrazoiak azalduko dira, eta, horretarako, hainbat egile desberdinen iritzia kontuan hartuko da era argi batean justifikatu ahal izateko. Ondoren, proposamenean zehar erabiliko diren helburu orokorrak zein espezifikoak azalduko ditut, edukiekin batera. Behin oinarrizko gauzak azaldu direla, proposamenean zentratuko gara. Horretarako, metodologia, jarduerekin batera, argi eta garbi azalduko da zalantzak egon ez daitezan. Azkenik, proposamen didaktikoaren gaineko ebaluazio orokor bat burutuko da, ekintza desberdinak ondo edo gaizki burutu diren jakiteko.

5.2. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN JUSTIFIKAZIOA

Atal honetan, hainbat egileren iritzien bidez, nire proposamen didaktikoaren arrazoiak justifikatuko dugu. Hasteko, Juan Pedro Saura Garcia-k (2015) adierazi bezala, ipuin musikala garrantzi eta erabilera handiko tresna metodologiko bat da hainbat arrazoiengatik. Izaera ludikoa du, eta irudimena, sormena eta adierazpena garatzea ahalbidetzen du, metodologia aktibo eta parte-hartzaile baten bidez, horrela, norberaren autonomia zein ekimena bultzatuz eta ikasten ikasteko gaitasuna garatuz. Era berean, ipuin musikalak balio sozial, pertsonal eta familiarretan hezteko ahalmen handia du.

Are gehiago, ipuin musikalak irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan aplikatzeko tresna egokitzat jotzeko behar diren ezaugarri guztiak biltzen ditu. Hain zuzen ere, Enrique Encabo Fernández eta Berta Rubio Faus (2010) egileek ipuin musikalaren alde egiten dute, diziplinarteko tresna erakargarria eta eraginkorra delako edukiak helarazteko orduan; adibidez, musika-ezagutzak (erritmoa, entonazioa, arnasketa, entzumena, etab.).

Juan Pedro Saura Garcia-k (2015) esan bezala, ipuin musikal batek hainbat gaitasun ezberdin garatzen ditu, musikalak izan ala ez, eta hurrengan, kantua eta mugimendua dira kasu. Hori horrela izanik, esan beharra dago kantua eta dantza komunikazioa eta emozioen adierazpena garatzen dituzten bi baliabide direla.

Bestetik, María Esther Romero Chaparro-k (2007) ipuin musikalaren bidez, estimulu musikalekin, literarioekin, plastikoekin, sortzaileekin eta irudimentsuekin harremana ezartzen dela dio. Estimulu horien barruan mugimendua eta dantza egoten dira askotan, eta horrek motibazio gisa balioko die hurrei, horrela, irakaskuntza aktibo eta parte-hartzaile bat praktikan jarritz.

Nadezhda Borislavovna Borislova-k (2017) dio ipuin musikatuek hezkuntzan, norberaren gorputzaren eta nortasunaren ezagutzan, eta, jakina, gaitasun artistikoaren eta sormenaren garapenean balio dezaketela.

Azkenik, beste egile baten iritzia daukagu ipuin musikalaren inguruan. Ipuin musikal batean ipuin baten narrazioak eta musikak fantasia sustatzen dute, era horretan irudimena zabalduz, eta, aldi berean, arreta, kontzentrazioa, hausnarketa eta parte-hartzea mantentzen laguntzen dute. Fernando Palacios-ek (2006) musika-ipuinek ikasgeletan duten potentziala azpimarratzen du; izan ere, ipuinek sortzen duten arreta giroa maila guztietan entzuteko egokiena baita, eta egoera ezin hobea ere bada mota guztietako kontzeptuak ulertu ahal izateko (Martínez Velázquez eta Iñesta Mena, 2017).

Beraz, egile guztiek esandakoaz aparte, ipuin musikala proposamen didaktikotzat aukeratzearen beste arrazoietakoa bat da hurrek gelan ikaskide zein irakaslearekin egindakoaz ahalik eta gehien disfrutatzen ikastea. Gainera, gaztetatik irudimenarekin eta sormenarekin lanean aritzea etorkizunerako baliagarria izan daiteke.

5.3. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

HELBURU OROKORRAK	HELBURU ESPEZIFIKOAK
<ul style="list-style-type: none"> ❖ Sergei Prokofiev konpositore errusiarraren irudia ezagutzea ❖ Ikasleengan musikarekiko interesa piztea ❖ Zenbait musika-instrumentuk igortzen dituzten tinbreak identifikatzea eta pertzibitzea 	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Musika-tresna desberdinak ezagutu, bereiztu eta erreproduzitzeko ahalmena garatzea ❖ Ikasleek gelako materialarekin gustoko musika-instrumentua sortzea ❖ Jolasaren bidez, haurrak, mugimenduaren eta instrumentuek egiten duten soinuaren bidez, esperimintatzea ❖ Mapa batean instrumentuak dagokien lekuan kokatzeko ahalmena garatzea ❖ Kontinenteen bidez, musika-instrumentuen jatorria ezagutzea ❖ Jarduera desberdinen bidez, gaitasun motore batzuk lantzea

Elaborazio propioa (2021).

5.4. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAN LANDUTAKO EDUKIAK

KONTZEPTUALAK	PROZEDURAZKOAK	JARRERAZKOAK
❖ “Pedro eta Otsoa” ipuin musikala	❖ Ipuin musikalaren entzuketara aktiboa egin	❖ Gogotsu parte-hartu eta disfrutatu
❖ Sergei Prokofiev	❖ Musika-instrumentu desberdinak bereizten jakin	❖ Ikaskideak errespetatu
❖ Animalia batzuk	❖ Musika-instrumentu desberdinekin esperimintatu	❖ Gelako zein irakasleak ekartzen dituen materialak zaindu
❖ Musika- instrumentu batzuk	❖ Musika-instrumentuek egiten duten soinua imitatu	❖ Jarduerakiko interesa eduki
❖ Erritmo musikalak	❖ Musika-instrumentuak mapan kokatzen saiatu	❖ Arauak eta txandak errespetatu
❖ Kontinenteak	❖ Sergei Prokofiev-en bizitza eta obrak ezagutu	
	❖ Ipuin musikaleko animaliak eta instrumentuak lotu	

Elaborazio propioa (2021).

5.5. PROPOSAMEN DIDAKTIKOAREN ORIENTABIDE METODOLOGIKOAK

5.5.1. Planteamendu metodologiko orokorra

Adierazi nahi den proposamen didaktiko hau 5-6 urteko hurrekin landu ahal izateko aukera bat da. Zoritxarrez, proposamen soil batean besterik ez da geratu, COVID’19-aren ondorioz ezin izan delako praktikan jarri. Horretaz gain, esan beharra dago planteamendu hau 15 egunetan egiteko modukoa dela, astean 3 klase ordu hartuz.

Kontuan izanda proposatu diren 10 jarduerak ez dutela iraupen berdina, iraupen laburragoa duten jarduerak era egoki batean burutu ahalko lirateke, baina luzeagoak diren jarduerak, aldiz, azkenengo astean indartu beharko lirateke. Era horretan, jarduera guztiak behar bezala egingo lirateke eta ez lirateke bukatu gabe egongo.

Halaber, ikasleen arteko lankidetza ezinbestekoa izango da ondorengo jardueretarako. Azken hauek ondo egin ahal izateko, ikasleek euren arteko laguntza ezinbestekoa izango da. Gainera, talde-lana etorkizunerako baliagarria izango zaie. Gaztetatik elkarlanean aritzen badira, hazten doazen heinean, lankidetz a edo adiskidetasuna erabiltzea errazagoa egingo zaie; izan ere, Haur Hezkuntzan ikasi baitute zein den taldean lan egitearen kontzeptua. Horretaz gain, jarduera hauek burutzeko, familien parte-hartzea komenigarria da (haien seme-alabei materiala lortzen laguntzeko, esate baterako).

Proposamenean zehar lantzen diren ariketa desberdinen bidez, ikasketa esanguratsua nabarmentzen da; izan ere, planteatzen diren jarduera desberdinen bidez, haurrek zekizkiten edukiez aparte, gehiago eta haien artean desberdinak direnak ere ikasiko dituzte.

Aniztasunari dagokionez, berriz, esan beharra dago gure gizartea anitza dela. Hortaz, planteamendu hau burutzerako orduan, aniztasun ugarirekin topo egin dezakegu. Hori dela eta, beti errespetuzko jarrera edukitzea eskatzen zaie ikasleei. Irakasleei, aldiz, ikasleei aniztasunak duen garrantzia azaltzea eskatzen zaie. Bestalde, irakasle taldearen zein eskolaren partetik, inongo arazorik baldin badute (arrazakeria, familia eredu desberdinak, urritasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak, baliabide ekonomiko desberdinekoak, haurra atzeritarra izatea, ideologia edo sinesmen desberdinekoak, etab.), familiari zein umeari, behar izanez gero, edozein eratako laguntza emango zaio. Gure planteamenduan, ez da inor diskriminatua izango, haur bakoitzak ideia berriak ekar ditzakeelako. Proposamen didaktikoa egingo den gelan aniztasuna egotea (kasu honetan, herri desberdineko haurrak egotea) guztiz onuragarria izango da, bere herrian egiten denaren berri eman diezaguketelako.

5.5.2. Jarduera-zerrenda

Atal honetan, jarduerak era labur batean azalduak izango dira. Jardueren inguruan informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi 3.eranskina.

1. “Pedro eta Otsoa” ipuin musikala

Lehenengo jarduera honetan hurrei sarrera bezala, azalpen txiki bat egingo zaie. Hau da, ikasleak “Pedro eta Otsoa” ipuin musikala entzuteko prestatu. Ondoren, irakaslearekin batera, adi-adi ipuin musikala ikusiko dute eta bertan gertatzen diren ekintza desberdinak hautemango dituzte. Horretarako, ikasle guztiak isilik egotea ezinbestekoa izango da. Gainera, pixkanaka-pixkanaka, musikaren munduan sartzen hasiko dira ikasleak musika-instrumentuak entzuten hasten direnean.

2. “Nortzuk dira istorioan zehar agertzen diren pertsonaiak?”

Izenburuak argi eta garbi esaten duen bezala, haurrak ohartu beharko dira ipuinean zehar animalia desberdinak agertzen direla. Horretaz gain, pertsonaia edo animalia bat agertzen denean, instrumentu desberdin bat ere agertzen dela ohartzen hasi beharko dira, baina instrumentuak hurrengo jardueran sakonduko dituzte gehiago. Hori horrela izateko, ikasle guztiak pantailaren aurrean eseriko dira, korro bat sortuz, eta irakasleak esaten diena egingo dute. Kasu honetan, irakasleak eskatuko dien lehenengo gauza isiltasuna egotea izango da.

Irakaslearen argibideak jarraitu eta gero, ipuina arretaz ikusten hasiko dira animalia desberdinak agertzen direla konturatzeko.

3. “Instrumentuak? Ba al dakigu zer diren eta zeintzuk entzun ditugun?”

Ikasleek instrumentu desberdinak hautemango dituzte, hau da, entzumenaren bitartez instrumentu desberdinak daudela konturatuko dira. Horretaz gain, instrumentuen munduan barneratuko dira ikasleak irakaslearekin batera. Irakasleak instrumentu baten soinua entzutean, bideoa eten egingo du eta ikasleei ezagutzen duten ala ez galdetuko die. Instrumentua ezaguna egiten zaion ikasleak, besoa altxatuko du eta ozen esango du zein den.

4. “Istorioko pertsonaiak eta instrumentuak elkartuz”

Jarduera hau burutzeko, bi karta multzo beharko ditugu. Multzo batean istorioan zehar agertzen diren instrumentuak egongo dira, eta bestean, berriz, istorioko pertsonaiak. Kasu honetan, hurrek mahai gainean buruz behera dauden kartan altxatzen joan beharko dira, bikotea aurkitzeko. Bikotea ez badute asmatzen edo aurkitzen, irakaslearen galderari erantzuten saiatuko dira. Bikotea ez aurkitzean, talde horrek txanda galduko du eta beste taldea bikoteen bila hasiko da.

5. “Mapa eskuan, baina nongoa da istorioan agertzen den instrumentu bakoitza?”

Jarduera honetarako, irakasleak gelara atlas bat eramango du eta munduko mapa erakutsi die umeei. Bertan, irakasleak, hurrei munduko leku guztiak erakutsiko dizkie, eta ondoren, instrumentu bakoitzaren gometsa erakutsiko die hurrei. Instrumentuak non jokatu jakiteko, irakaslearen laguntza izango dute hurrek. Irakasleak, instrumentu bakoitzaren gometsa erakutsiko die hurrei eta banan-banan, irakaslearen laguntzarekin, gometsak mapan zehar itsasten joango dira. Era berean, jarduera hau hainbat gauzentzako baliagarria izango zaie, hots instrumentuak nongoak diren ikasteko eta baita, herri batetik beste batera zer-nolako distantzia dagoen ikusteko ere.

6. “Hausnartu dezagun gustoko instrumentuaren inguruan”

Behin hurrek instrumentuen inguruan zerbait gehiago dakitena, jarduera hau haien gustoko instrumentuaren inguruan hitz egiteko erabiliko da. Horretarako, hurrek irakaslearen inguruan korro bat sortuko dute eta irakaslearen galderei erantzungo diete. Jarduera honetan, txandak errespetatzea nahitaezkoa da.

7. “Gure orkestra sortzen”

Jarduera honetarako, haur bakoitzaren gustoko instrumentua zein den jakitea ezinbestekoa izango da. Hori dela eta, aurreko jardueran hurren gustoko instrumentua zein izan den gogorarazi beharko da. Are gehiago, gustoko instrumentuaren simulazio bat egingo dute eta baita, instrumentua egingo dute irakaslearen laguntzarekin. Jardueraren izenburuak dioen bezala, hurrek orkestra bat sortuko dute eta horretarako, familiaren laguntza beharrezkoa izango da. Hain

zuzen ere, hurrek etxetik ahalik eta kutxa gehien ekarri beharko dituzte, baina ezin badute, materiala eskolatik hartzeko aukera izango dute.

8. “Egilea ezagutzen”

Bada garaia hurrek “Pedro eta Otsoa” ipuin musikaleko egilea nor den jakiteko. Horretarako, egilearen bizitza ezagutuko dugu. Irakasleak, berak sortutako power point bat erakutsi die ikasleei, egilearen inguruko datu batzuk jakiteko. Horretaz gain, irakasleak galdera batzuk ere egingo dizkie ikasleei eta egilearen inguruko bideo labur bat ere jarriko die.

9. “Sergei Prokofiev-en lanetan barneratzen”

Sergei Prokofiev nor den jakin eta gero, izenburuak dioen bezala, bere lanetan barneratuko gara. Bere lanen artean hainbat lan ezagun aurkitu daitezke, baina kasu honetan, “El amor de las tres naranjas” lana erabiliko dugu. Bertan, jolas antzerako batzuk egingo dira hurrekin.

10. “Zer-nolako esperientzia izan dugu?”

Azken jarduera honetan, ikasleek irakaslearekin batera proposamen didaktikoko jarduera desberdinen inguruan hitz egingo dute. Bertan, haien sentimenduak azaleratuko dituzte. Horretaz gain, irakasleak galdera batzuk egingo dizkie jarduera desberdinekin zelan sentitu diren jakiteko. Horretaz gain, hurrek zuzeneko kontzertuen garrantzia ikusteko, Lehen Hezkuntza zein Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle bati aukera emango zaie Haur Hezkuntzako gelako umeengana etortzeko. Are gehiago, “Pedro eta Otsoa” ipuineko obra nagusia jo dezake.

5.5.3. Baliabideak / Materialak

Jardueretan zehar erabiliko diren baliabideak zein materialak ugariak izango dira: ordenagailua, ipuin musikalaren bideoa, power point-ak, kartak (animali eta instrumentuenak), mapa, gometsak, globoak, papera, arkatzak, artaziak, kola, kartulinak, artilea, aulkiak, mahaiak, etab.

5.5.4. Espazioa / Denbora

Ariketa hauetarako, erabiliko diren espazioak psikomotrizitate gela, plastika gela, musika gela, haurren gela zein ordenagailuen gela izango dira. Denborari dagokionez, berriz, ariketa ia guztien iraupena antzerakoa izango da, hau da, gehienez 30 minutuko jarduerak burutuko dira. Are gehiago, aipatu beharra dago ariketa batzuen iraupena 30 minutu baino luzeagoa (50 minutu hain zuzen ere) eta laburragoa (10-15 minutu) izango dela.

5.6. PROPOSAMEN DIDATIKOAN ERABILITAKO EBALUAZIOA

5.6.1. Ebaluazio-motak

Ebaluazioari dagokionez, bi mota egongo dira. Lehenik eta behin, hasierako ebaluazioa kontuan izatea ezinbestekoa da. Bertan, gaiaren aurkezpena egingo da haurren aurrezagutzak zeintzuk diren jakiteko. Horretaz gain, hasierako ebaluazio honekin lortu nahi dena haurrak motibatzea eta ikasi beharrekoaren puntu nagusien berri ematea da. Are gehiago, prozesu honetan ikasleen artean interakzioak sustatzea nahitaezkoa da. Era horretan, taldean lan egitea zer den ikasten joango dira poliki-poliki. Hortaz, guzti honekin lortu daitekeena da ikasleek aurrez dakitena, beren ohiturak, proposatutako eginkizunak irudikatzeko moduak, etab.

Bestetik, jarraitutako ebaluazioa ere kontuan hartuko da. Prozesu hau garrantzitsuenetakoa da; izan ere, era askotako jarduerak (ikaskuntza berriak txertatzeko jarduerak, ikaskuntza berriak aplikatzeko eta sendotzeko jarduerak, etab.) planteatzen baitira. Horretaz gain, estrategia batzuk aurreikustea ere beharrezkoa izaten da. Gure kasuan nabarmentzen direnak autonomia gaitasuna garatzen duten estrategiak (erabakiak hartzea) eta erlazio soziala sustatzen dutenak (elkarlana, entzute aktiboa eta enpatia sustatzen duten jarduerak) dira. Gainera, azpimarratzea proposamen honetan erabakietako asko ikasleek hartuko dituztela, haiek baitira jardueren protagonistak. Azken finean, etengabeko ebaluazio hau irakasleentzako baliagarria izan daiteke ikasleek jardueretan izan ditzaketen zailtasunak antzemateko (Eusko Jaurlaritza, d.g.).

5.6.2. Ebaluazio-tresnak

Ebaluazio-tresnei dagokienez, proposamen didaktiko honen ebaluazioa egiteko ez dira idatzizko azterketan erabiliko. Izan ere, haurrak hain txikiak izanda ez dakite behar bezala idazten oraindik, hori dela eta ez dute idatzi beharko. Kasu honetan, galdetegiak erabiliko dira ikasleen lana ebaluatzeko. Hau da, fitxa bat banatuko zaio ikasle bakoitzari jardueren inguruko ebaluazio bat egiteko. Galdetegiez gain, ebaluazio-tresna gisa argazkiak zein bideoak erabiliko dira. Azken hauetarako, beharrezkoa izango da gurasoek irakasleei argazkiak ateratzeko zein bideoak grabatzeko baimena eskatzea, hori gabe ezin izango baita era honetako ebaluazio-tresna erabili. Are gehiago, beste ebaluazio-tresna bat familiekin bilerak egitea izango da. Era horretan, familiek euren seme-alaben inguruko informazioa jaso dezakete.

5.6.3. Ebaluazio-irizpideak

Honako ebaluatzeko irizpideak kontuan hartuko ditugu:

- Ea haurrak laguntza eskatzen duen beharrianak eta bere gogoia asetzerakoan
- Ea ikasleek hizkera egokia erabili duten ikasleengana zuzentzeko
- Ea hurrek ezarritako helburuak bete dituzten
- Ea jarduerak egiteko ezarritako denbora bete den
- Ea erabilitako materiala egokia izan den
- Ea hurrek lankideen iritziak errespetatu dituzten
- Ea planteatu diren jardueretan hurrek gogotsu parte hartu duten

6. AZKEN BALORAZIOA ETA ONDORIOAK

Lan hau aurrera eramanez, lortu dugun gauzetariko bat ipuin musikala lantzea izan da jarduera desberdinak planteatuz eta burutuz. Antzina ez bezala, gaur egun musika landu ahal izateko material nahikoa dago. Baina, material ugari egon arren, 5-6 urte bitarteko haurrekin praktikan jartzeko proposamen didaktiko bat formulatu dugu.

Marko teorikoan argi eta garbi ikusi dugun moduan, haurren ikasketa-prozesurako musika hezkuntza funtsezkoa da. Hori dela eta, Haur Hezkuntzako etapan musika lantzea ezinbestekoa dela uste dugu. Guztiok dakigunez, Haur Hezkuntza etaparik garrantzitsuena da umeen garapenerako; izan ere, hainbat ekintza zein musika estiloren bidez, haurrak euren nortasuna eraikitzen joan daitezke. Era horretan, haien interesak, nahiak, gustuak, pentsamenduak, etab. adieraziz. Hori horrela izan dadin, gomendagarria da musika hezkuntza behar bezala landu ahal izateko, nahitaezko materialak zein baliabideak edukitzea.

Gure kasuan, aurreko guztia kontuan izanik, proposamen didaktiko bat egitea erabaki genuen. Bertan, ipuin musikala ikusteaz gain, ipuin musikalean agertzen diren egile, animala zein instrumentuekin egin ahal izateko hainbat jarduera mota planteatu dira. Horrela, haurrek musikaren oinarrizko hainbat atal landu ditzakete. Esate baterako, entzumena, musika-tresnak, mugimendua, etab. Are gehiago, aipatu beharra dago musika irakasgaiaz aparte, beste irakasgairen bat landu dezaketela. Kasu honetan, maparen jarduerari erreferentzia egiten diogu, non haurrek pixkanaka eta irakaslearen laguntzarekin, geografia landu dezaketen.

Horretaz gain, aipatu beharra dago musikako oinarrizko atalak lantzeaz gain, curriculumeko hainbat eduki zein helburu bete direla. Hortaz, kontzeptu musikalak lantzeaz gain, umeen arteko errespetua, elkarlana, parte-hartzea, etab. jorratuko dira.

Musika, tresna egokia da haurrek euren sentimenduak zein emozioak adierazteko. Haien izaera adierazteko zailtasunak dituzten horientzat, musika baliagarria izan daiteke. Bertan, mugimendua, imitazioa eta kantuaren bitartez, euren sentimenduak, emozioak zein nahiak erakusten hasiko dira. Era horretan, ohartuko dira musika ez dela soilik irakasleak esandako abestiak kantatzea edo solfeatzea. Baizik eta musika beste komunikazio bide bat dela konturatuko dira.

Bestetik, COVID-19aren ondorioz, ez dugu aukera izan proposamen didaktikoa praktikan jartzeko. Nahiz eta diseinuaren proposamen sakon bat egin, ezin izan dugu ikusi zein izango litzatekeen umeen erreakzioa jarduera bakoitza egiteko orduan. Are gehiago, ez dugu okasiorik izan ikasleek jarduera ezberdinen bidez ikasten dutena ikusteko. Horretaz gain, ezin izan dugunez proposamenarekin aurrera egin, ez dugu zehatz-mehatz jakin zein izango litzatekeen jardueretarako iraupen egokiena. Hau da, proposamen soil batean besterik ez da geratu. Beraz, ez dugu ikasle taldea ezagutu eta jardueren planteamendua gainetik egin dugu. Materialen zein baliabideen kasuan ere gauza bera gertatu da. Ez dugunez praktikara eramanez, ez dugu jakin benetan zein baliabide erabil genezakeen ekintza desberdinetarako. Baina uste dugu, planteamendua era egoki batean bete dela.

Espero dugu egoera hau hobetu ahala, planteatu den proposamen didaktikoa eskolaren batean egin ahal izatea eta jarduera guztiak 5-6 urteko haurrentzat egingarriak izan daitezela. Era honetan, proposamenak izan dituen ahuleziak eta indarguneak behatzeko eta proposamen egoki bat sortzeko.

Bukatzeko, eskerrak eman nahiko nizkioke nire Gradu Amaierako Lanaren tutoreari, Txomin Garcia de la Torreri, hain zuzen ere. Mila esker hilabete hauetan emandako laguntza eta arretagatik. Oso onuragarria izan baita niretzat azken lau hau zurekin egin izana.

Gradu osoan zehar izan ditudan irakasle zein ikaskideei eskerrak eman nahiko nizkieke ere. Eman dizkidaten aholkuengatik batik bat. Ikaskideei, aldiz, eskerrik asko 4 urte hauetan zehar nire ondoan egoteagatik eta baita, elkarrekin murgilduz pixkanaka gure helburua lortzen gaudelako ere.

Azkenik, aita, ama, nire neba eta osabari eskerrak ematea gustatuko litzaidake. Egunero emandako indar eta maitasunari esker, lan hau aurrera eramatea lortu dut. Are gehiago, mila esker amari, musikako irakaslea izanda, txikitatik barneratu didalako musikak duen garrantzia. Osabari ere eskerrik asko, izan ere, lanarekin blokeatuta egon naizenean informazioa lortzen lagundu didalako.

7. BIBLIOGRAFIA

- ¿Y eso de «conservatorio»? *El origen del término*. (2000). [elconservatorio.es: https://www.elconservatorio.es/y-eso-de-conservatorio-el-origen-del-termino/](https://www.elconservatorio.es/y-eso-de-conservatorio-el-origen-del-termino/) helbidetik eskuratua.
- Aznárez, J.J. (1992). *Didáctica del lenguaje musical*. Madrid: Música para todos.
- Bernabeu, N. eta Golstein, A. (2009). *Creatividad y aprendizaje*. Narcea.
- Bernal Vázquez, J. eta Calvo Niño, M. J. (2000). *Didáctica de la música. La expresión musical en la educación infantil*. Málaga: Aljibe.
- Bolívar Chávez, O. E., Véliz Briones, V. F., Alcívar Cedeño, A. K., Zambrano Sornoza, J. M. eta Cruz Mendoza, J. C. (2018). La enseñanza de la música. Una estrategia pedagógica para la educación. *Polo del Conocimiento*, 3(12), 135-148.
- Borislavovna Borislova, N. (2017). Desarrollo de la creatividad en la primaria a partir del cuento musical. *RIDE. Revista Iberoamericana para la Investigación y el Desarrollo Educativo*, 7(14), 265-298.
- Brufal Arráez, J. D. (2013). Los principales métodos activos de educación musical en primaria: diferentes enfoques, particularidades y directrices básicas para el trabajo en el aula. *Artseduca* (5), 6-21.
- Campbell, D. (2000). *El efecto Mozart para niños. Despertar con música el desarrollo y la creatividad de los más pequeños*. Barcelona: Urano.
- Casares Rodicio, E. (1983). Los periodos musicales. *Enciclopedia Salvat de los grandes temas de la música, Tomo 4* (or. 50-62). Pamplona: Salvat S.A.
- Cuevas Romero, S. (2015). La educación musical y sus avances metodológicos, desde la segunda mitad del siglo XX a la actualidad. *Arte y Movimiento*, 12, 40-50.
- Delgado, B. (2004). Vives, Comenio y Sarmiento. *Sarmiento Anuario galego de historia da educación*, 8, 89-100.

- Díaz Gómez, M. (2005). La Educación Musical en la Escuela y el Espacio Europeo de Educación Superior. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 1, 23-37.
- DIDAU Antzerki Faktoria. (2018ko otsailak 1). *Peru eta Otsa*.
<https://www.youtube.com/watch?v=t46dLXr0Kws> helbidetik eskuratua
- EE.AA. (2016). Xedapen orokorrak. Hezkuntza politika eta kultura saila. *Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkaria*, 1-47.
- El Txantreano. (2016ko urriak 3). *Pedro y el Lobo HD*.
<https://www.youtube.com/watch?v=i6jCFXUugNY&feature=youtu.be>
 helbidetik eskuratua
- Encabo Fernández, E., & Rubio Faus, B. (2010). Suena la flauta en ... El Magreb: Cuentos musicales para la expresión y la creatividad en el aula. *Arte y ciencia: Creación y responsabilidad*, 87-106.
- Eusko Jaurlaritz. (d.g.). *Unitate Didaktikoak egitea eta ebaluatzea hezkuntza-esparru berrian*. Berritzegune Nagusia:
https://www.berrigasteiz.com/site_argitalpenak/docs/320_curriculum/3202015003e_Pub_BN_unitate_didaktikoak_e.pdf helbidetik eskuratua
- Fubini, E. (1997). *La estética musical desde la antigüedad has el siglo XX*. Madrid: Alianza.
- García de la Torre, Domingo (2019). *Musika II*. Argitaraturik gabeko materiala.
- González Mediel, O. (2008). La canción como recurso de Educación Intercultural en la Escuela: Cancionero Intercultural. *Música. Arte. Diálogo. Civilización* (or. 27-65). Coimbra (Portugal): Center for Intercultural Music Arts.
- González Serrano, P. (1994). La música y la danza en el antiguo egipto. *Espacio, Tiempo y Forma, Serie II, Historia Antigua*, 7, 401-428.
- Instituto Provinciale de la Infancia "Santa Maria della Pietà"*. (1346).
<http://www.pietavenezia.org/it/> helbidetik eskuratua.

- Israel Saro, M. (2003). *Proyecto docente*. Sevilla: Universidad de Sevilla.
- Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa (LGE). *Boletín Oficial del Estado*, 187.
- Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre, de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE). *Boletín Oficial del Estado*, 238.
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (LOE). *Boletín Oficial del Estado*, 106.
- Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, para la mejora de la calidad (LOMCE). *Boletín Oficial del Estado*, 295.
- López-Calo, J. (1984). El momento musical anterior a Bach. *Enciclopedia Salvat de los grandes compositores, Tomo 1* (or. 120.128). Pamplona: Salvat S.A.
- Martínez, R. (2013). Pedro y el Lobo. Berreskuratua: <https://vimeo.com/70355245>
- Martínez Velázquez, L. eta Iñesta Mena, E. M. (2017). El cuento musical como recurso para trabajar la comprensión lectora en el aula. *Revista de Educación de la Universidad de Granada*, 24, 65-80.
- Palacios, F. (2006). *Cuento y música: Un idilio permanente*. <http://www.cervantesvirtual.com/obra/cuento-y-musica-un-idilio-permanente/> helbidetik eskuratua
- Pascual Mejía, P. (2006). *Didáctica de la Música*. Madrid: Pearson Prentice Hall.
- Patricia Shehan Campbell. (2020). University of Washington: <https://music.washington.edu/people/patricia-shehan-campbell> helbidetik eskuratua.
- Rapozeiro França, G. (2018). A Teoria Espiral do Desenvolvimento Musical e a Epistemologia Genética: relações e dissociações entre os pensamentos de Keith Swanwick e Jean. *Simpom*, 146-156.
- Romero Chaparro, M. E. (2007). Los cuentos musicales en la Educación Primaria. *Filomúsica*, 82.

- Russian Philharmonic – Moscow City Symphony. (2012). *S. Prokófiev. Suite from The Love for Three Oranges. 03. March.*
<https://www.youtube.com/watch?v=7Q0toEhKRWk> helbidetik eskuratua
- Samper Arbeláez, A. (2010). La apreciación musical en edades juveniles: territorios, identidad y sentido. *Cuadernos de música, artes visuales y artes escénicas*, 5 (2), 29-41.
- Sánchez Muñoz, D. (2018). Una reflexión sobre el origen de la importancia de la música en la antigua Mesopotamia a partir de los cilindros de Gudea A y B. *ARYS. Antigüedad, Religiones y Sociedades* (14), 193-219.
- Saura García, J. P. (2015). El cuento musical: planteamientos didácticos en torno a una educación interdisciplinar. *Proyecto de investigación*, 489.orr.
- Schafer, R. M. (1965). *El compositor en el aula*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1967). *Limpieza de oídos: notas para un curso de música experimental*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1969). *El nuevo paisaje sonoro: un manual para el maestro de música moderno*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1970). *Cuando las palabras cantan*. Buenos Aires: Ricordi.
- Schafer, R. M. (1975). *El rinoceronte en el aula*. Buenos Aires: Ricordi.
- Sepulveda, E. (2015eko uztailak 20). *PEDRO Y EL LOBO - ESPAÑOL*.
<https://www.youtube.com/watch?v=31Df9snxMcM&feature=youtu.be>
 helbidetik eskuratua
- Soëtard, M. (1997). Historicidad y actualidad de Pestalozzi. *Educación y pedagogía*, 17, 15-26.
- Soëtard, M. (2013). Fiedrich Fröbel (1782-1852). *Padres y maestros*, 350, 45-48.
- Solano Estrella, A. (2020ko martxoak 14). *PEDRO Y EL LOBO - Versión 1978. Narración de David Bowie. Subtitulado al castellano.*

<https://www.youtube.com/watch?v=xsrZEh1UaEY&feature=youtu.be> helbidetik eskuratua

Soledad Gómez, M. eta Carvajal, D. (2015). El arte como herramienta educativa: un potencial para trabajar la inclusión y la diversidad. *Revista para el aula 14*, 47-48.

Swanwick, K. (1991). *Música, pensamiento y educación*. Ediciones Morata, S.L.

Valencia Mendoza, G. (2015). El legado de Edgar Willems a la educación musical de hoy. Herencia de Edgar Willems, pedagogo del siglo XX, a la Pedagogía Musical del siglo XXI. *Ricercare*, 46-52.

Valles del Pozo, M. J. (2009). La educación musical en la historia de occidente: apuntes para la reflexión. *Neuma*, 218-232.

Velazco, J. (1977). La música de Roma. *Anales del Instituto de Investigaciones Estéticas*, 47, 79-98.

Vilar i Monmany, M. (2014). Acerca de la educación musical. *LEEME*, 1-25.

Ward, J. (1964). *Método Ward. Pedagogía Musical Escolar de Justine Bayard Ward*. Bélgica: Declésse.

Willmann, O. (1907ko martxoak 1). *Las siete artes liberales*. La enciclopedia católica: <https://web.archive.org/web/20130129135334/http://ec.aciprensa.com/a/artesliberales.htm> helbidetik eskuratua.

8. ERANSKINAK

1.eranskina: Legeen taula

LEGEAK	MUSIKAREN INGURUKO IDEIA GARRANTZITSUENAK
LGE (1970)	<p>SECCIÓN TERCERA. BACHILLERATO.</p> <ul style="list-style-type: none">• Las materias comunes (habrán de ser cursadas por todos los alumnos) serán impartidas en las siguientes áreas:<ul style="list-style-type: none">○ Formación estética, con especial atención a Dibujo y Música. <p>DISPOSICIONES TRANSITORIAS. SEGUNDA.</p> <ul style="list-style-type: none">• Las Escuelas Superiores de Bellas Artes, los Conservatorios de Música y las Escuelas de Arte Dramático se incorporarán a la Educación universitaria en sus tres ciclos, en la forma y con los requisitos que reglamentariamente se establezcan.
LOGSE (1990)	<p>Artículo 16</p> <ul style="list-style-type: none">• La educación primaria será impartida por maestros, que tendrán competencia en todas las áreas de este nivel. La enseñanza de la música, de la educación física, de los idiomas extranjeros o de aquellas enseñanzas que se determinen, serán impartidas por maestros con la especialización correspondiente. <p>Artículo 20</p> <ul style="list-style-type: none">• La educación secundaria obligatoria constará de dos ciclos, de dos cursos cada uno, y se impartirá por áreas de conocimiento. Serán áreas de conocimiento obligatorias en esta etapa las siguientes:<ul style="list-style-type: none">h) Música. <p>SECCIÓN PRIMERA DE LA MÚSICA Y LA DANZA.</p> <p>Artículo 39</p> <ul style="list-style-type: none">• Podrán cursarse en escuelas específicas: estudios de música o de danza <p>Artículo 40</p> <ul style="list-style-type: none">• 2. Para acceder al grado medio de las enseñanzas de música y danza será preciso superar una prueba específica de acceso

<p>LOE (2006)</p>	<p>CAPÍTULO VI. ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS.</p> <p>Artículo 45. Principios.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Las enseñanzas artísticas tienen como finalidad proporcionar al alumnado una formación artística de calidad y garantizar la cualificación de los futuros profesionales de la música, la danza, el arte dramático, las artes plásticas y el diseño. <p>SECCIÓN PRIMERA. ENSEÑANZAS ELEMENTALES Y PROFESIONALES DE MÚSICA Y DE DANZA</p> <p>Artículo 48. Organización.</p> <ul style="list-style-type: none"> • 2. Las enseñanzas profesionales de música y de danza se organizarán en un grado de seis cursos de duración. <p>Artículo 49. Acceso.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Para acceder a las enseñanzas profesionales de música y de danza será preciso superar una prueba específica de acceso regulada y organizada por las Administraciones educativas. <p>SECCIÓN TERCERA. ENSEÑANZAS ARTÍSTICAS SUPERIORES</p> <p>Artículo 58. Organización de las enseñanzas artísticas superiores.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Los estudios superiores de música y de danza se cursarán en los conservatorios o escuelas superiores de música y danza.
<p>LOMCE (2013)</p>	<p>HELBURUA</p> <ul style="list-style-type: none"> • El alumnado es el centro y la razón de ser de la educación • Los principales objetivos que persigue la reforma son reducir la tasa de abandono temprano de la educación, mejorar los resultados educativos <p>IDEIA NAGUSIAK</p> <p>Artículo 34 ter. Organización del segundo curso de Bachillerato.</p> <p>4. En función de la regulación y de la programación de la oferta educativa que establezca cada Administración educativa y, en su caso, de la oferta de los centros docentes, los alumnos y alumnas cursarán un mínimo de dos y máximo de tres materias de las siguientes del bloque de asignaturas específicas:</p> <p>a) Análisis Musical II.</p> <p>b) Ciencias de la Tierra y del Medio Ambiente.</p> <p>c) Dibujo Artístico II.</p>

d) Dibujo Técnico II, salvo que los padres, madres o tutores legales o el alumno o alumna ya hayan escogido Dibujo Técnico II en el apartado 1.e).2.º

e) Fundamentos de Administración y Gestión.

f) Historia de la Filosofía, salvo que los padres, madres o tutores legales o el alumno o alumna ya hayan escogido Historia de la Filosofía en el apartado 2.e).5.º

g) Historia de la Música y de la Danza.

h) Imagen y Sonido.


Artículo 44. Títulos y convalidaciones

«1. La superación de las Enseñanzas Profesionales de Música o de Danza dará derecho a la obtención del título de Técnico correspondiente.

2. El alumnado que se encuentre en posesión de un título de Técnico de las Enseñanzas Profesionales de Música o de Danza podrá obtener el título de Bachiller

«3. Los alumnos y alumnas que hayan terminado los estudios superiores de Música o de Danza obtendrán el título Superior de Música o Danza en la especialidad de que se trate

2. eranskina: Swanwicken metodo espirala



3. eranskina: Jarduerak

1. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>“Pedro eta Otsoa” ipuin musikala</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Lehenik eta behin, haurrak lurtean eseriko dira haien artean erdi-zirkulu bat osatuz, guztiok pantaila ikusi ahal izateko. · Hurrei sarrera bezala, azalpen txiki bat egingo zaie. Hau da, irakasleak “Pedro eta Otsoa” ipuin musikala entzuteko prestatu. · “Pedro eta Otsoa”-ren ipuina ikusiko dute hurrek irakaslearekin batera. · Irakasleak, lehenik eta behin, ikusiko dutenaren berri azalduko die eta, ondoren, ipuina kontatuko die musikaririk gabe. · Irakasleak ipuina kontatu eta gero, hurrei pantailan bideoa jarriko die. · Ariketa honen helburua, hain zuzen ere, bideoak aurrera egin ahala haurrak ipuin musikala arretaz entzutea eta ikustea izango da, instrumentu desberdinak nola jotzen diren, ze soinua egiten duten eta ipuineko pertsonaia desberdinez ohartzeko. Gainera, horretan guztian arreta jartzeak aurrerago egingo diren jardueretan lagunduko baitie. · Hurrengo esteka erabiliko da ariketa aurrera eramanez ahal izateko: [Rafa Martínez]. (2013). Pedro y el Lobo. Berreskuratua: https://vimeo.com/70355245 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailua · Ipuin musikalaren bideoa 	<ul style="list-style-type: none"> · Gela · 30’

2. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>Nortzuk dira istorioan agertzen diren pertsonaiak?</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Jarduera honetarako oso garrantzitsua izango da hurrek arretaz ikustea eta entzutea ipuin musikala; izan ere, ipuin musikalean zehar arretaz jardutea lagungarria izango baita hurrengo ariketetarako. · Kasu honetan, ez da berriro ipuin musikal osoa berriro ikusiko. Ipuinaren hasiera soilik ikusiko da, bertan pertsonaiak agertzen baitira. · Bertan, garrantzi handikoa izango da haurrak konturatzea ipuinean zehar pertsonaia desberdinak agertzen direla. · Horretaz gain, musika instrumentu baten soinua entzuten denean pertsonaia desberdin bat agertzen dela konturatzea ere oso garrantzitsua da. · Gainera, hasiera batean instrumentu baten soinua agertzen denean jarraian soinua hori errepresentatzen duen pertsonaia agertzen da, baina istorioak aurrera egin ahala, soinua ez dira orden berdinean agertuko. · Azken finean, jardueraren izenburuak esan bezala, helburu nagusia pertsonaia desberdinak hautematea eta bakoitza soinua desberdin batekin lotuta dagoela konturatzea da. · Horretarako, irakasleak hurrengo bertso famatua egingo die: <ul style="list-style-type: none"> <i>Begiak, zabal-zabalik.</i> <i>Ahoa, kremailera baten moduan itxita, kris-kras.</i> <i>Eta,</i> <i>Belarriak, tente-tente izango ditugu, ipuina arretaz entzuteko.</i> 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailua · Ipuin musikalaren bideoa 	<ul style="list-style-type: none"> · Gela · 15-20'

	<ul style="list-style-type: none">· Bideoa ikusi eta gero, eta, ipuinean agertzen diren pertsonak zeintzuk diren dakitenean, arbelera irten beharko du taldeko kide batek.· Arbelean, animaliaren izena idazten saiatu beharko da ikaslea. Gainera, zalantzak izatekotan, taldekideei zein irakasleari galdetu diezaioke idazten dagoena ondo dagoen ala ez.		
--	---	--	--



3. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>Instrumentuak? Ba al dakigu zer diren eta zeintzuk entzun ditugun?</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Aurreko jardueraren antzera, kasu honetan ikasleek instrumentu desberdinak hautemango dituzte, hau da, entzumenaren bitartez instrumentu desberdinak daudela konturatuko dira. · Horretaz gain, instrumentuen munduan barneratuko dira ikasleak irakaslearekin batera. · Instrumentuak hautematen joateko, irakasleak ondorengoa egingo du; instrumentu baten soinua entzutean, irakasleak bideoa eten egingo du eta ikasleei ezagutzen duten ala ez galdetuko die. Horretaz gain, musika instrumentu bakoitzaren notazioa zein den ikusiko dute. · Instrumentua ezaguna egiten zaion ikasleak, besoa altxatuko du eta ozen esango du zein den. · Instrumentua zein den esan eta gero, taldeko pertsona bat arbelera joango da eta instrumentuaren izena arbelean idazten hasiko da. Zalantzak izanez gero, irakasleari zein taldekoei galdetu ahalko die ondo doan ala ez. · Taldeko beste kideek, paper batean idatzi beharko dute instrumentu bakoitzaren izena hurrengo orrialdean ikusten den moduan. 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailua · Ipuin musikalaren bideoa · Arbela · Fitxak 	<ul style="list-style-type: none"> · Musika gela · 15-20'












P con eleganza





			
K _ _ _ _ _	B _ _ _ _ _	Fl _ _ _ _	Fa _ _ _ _
			
Ti _ _ _ _ _	Tr _ _ _ _ _	O _ _ _ _	

4. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>Istorioko pertsonaiak eta instrumentuak elkartuz</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Jarduera hau burutzeko, bi karta multzo beharko ditugu. · Multzo batean istorioan zehar agertzen diren instrumentuak egongo dira, eta bestean, berriz, istorioko pertsonaiak. Adibidez, ahatea. · Kartak mahai baten gainean buruz behera egongo dira. · Jarduera honetan, haurren egitekoa karta bakoitzaren bikotea aurkitzea izango da. · Lehenengo multzo bateko karta bat altxatuko du, eta ondoren, beste multzoko karta bat. · Behin haurrak eskuan bi karta dituela, bere taldekideekin aztertu beharko du benetako bikotea den, eta bikotea ez bada, irakasleak galdetu egingo die ea gogoratzeko duten zein instrumenturekin doan altxatu duten animalia irudia. · Azken finean, “Memory” jolasaren antzerakoa izango da, hau da, memoria egin beharko dute gogoratzeko ze instrumentu doan animalia bakoitzarekin, eta, are gehiago, gogoratu beharko dute non dagoen animalia zuzenari dagokion instrumentua. 	<ul style="list-style-type: none"> · Animalien irudia duten kartak · Instrumentuen irudia duten kartak · Mahai handi bat 	<ul style="list-style-type: none"> · Gela · 15’



5. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>Mapa eskuan, baina nongoa da istorioan agertzen den instrumentu bakoitza?</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Jarduera honetarako, irakasleak gelara atlas bat eramango du eta munduko mapa erakutsi die umeei. · Irakasleak egingo duen lehenengo gauzetariko bat izango da hurrei munduko leku guztiak erakustea. · Ondoren, instrumentu bakoitzaren gometsa erakutsiko die hurrei. · Baliteke haurrak hasiera batean galduta sentitzea ez dakitelako zer eta nola egin. Horretarako, aurreko jarduera baten egindako musika instrumentuen inguruko ezagutza baliagarria izango da. · Irakasleak hurrei instrumentu bakoitzaren jatorria zein den adieraziko die eta mapan zehar leku hori non dagoen erakutsiko die. · Behin hurrek instrumentu bakoitzaren jatorria dakitela, instrumentu bakoitzaren gometsa mapan zehar itsasten saiatuko dira. · Haur Hezkuntzako haurrak direla kontuan izanik, oraindik ez dakite zein den mapa bakoitzaren funtzioa ezta non dagoen herrialde bakoitza. Horregatik, banan-banan eta irakaslearen laguntzarekin, maparen aurrean kokatuko dira eta gometsa itsatsiko dute. · Gomets guztiak itsatsita daudela, hurrek argi eta garbi ikusi dezakete ipuineko musika instrumentu bakoitzak jatorri zehatz bat daukala, eta horretaz gain, instrumentu bat baino gehiago herrialde berdinekoak izan daitezkeela. 	<ul style="list-style-type: none"> · Mahai handi bat · Mapa · Instrumentuen gometsak 	<ul style="list-style-type: none"> · Gela · 20'

	<p>· Are gehiago, jatorrien artean dauden distantziak ere hauteman ditzakete. Esate baterako, instrumentu baten jatorria Alemania izatea eta beste batena, aldiz, Italia.</p>		
--	---	--	--



6. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>Hausnartu dezagun gustoko instrumentuaren inguruan</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Jarduera honen bidez, haur bakoitzaren musika instrumentu gustokoenean zentratuko gara. · Horretarako, txandak errespetatuko dira irakasleak egindako galderei erantzuteko. · Ondorengoak dira irakasleak burutuko dituen galderak: <ul style="list-style-type: none"> a) Behin ipuina ikusi duzuela ba al daukazue gustoko instrumenturik? b) Zein da gehien gustatu zaizuena? c) Zerk deitu dizue arreta? d) Zergatik gustatu zaizue instrumentu hori? e) Ba al dakizue ze soinu egiten duen zuen gustoko instrumentuak? f) Nagusia zarenean, ipuinean ikusitako instrumenturen bat jotzea gustatuko litzaizueke? g) Posiblea izango litzateke instrumentuaren marrazki bat egitea? h) Esango zenidake zelan den txoriaren soinua? 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailua · Instrumentu desberdinen argazkiak · Papera · Arkatza 	<ul style="list-style-type: none"> · Gela · 20'

	<p>· Irakasleak galderak egin eta gero, bere iritzia emango die haurrei. Kasu honetan, instrumentuen ezaugarriak emango dizkie.</p> <p>Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none">• Aitona fagota da, ahots grabea du eta marmartia da. Melodia arduratuta egongo balitz bezala da.• Txirulak txoria errepresentatzen du. Txoriaren melodia azkarra da.		
--	---	--	--








7. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
Gure orkestra sortzen	<ul style="list-style-type: none"> · Aurreko jarduera kontuan izanda, hau da, haur bakoitzaren musika instrumentu gustokoena eta horretaz gain, haurrek instrumentuen inguruko ezagutza bat dutela, simulazio bat egiten hasiko dira irakaslearen laguntzarekin. · Jarduera honetan, gelako orkestra bat sortzen hasiko dira umeak. · Haur bakoitza (irakaslearen laguntzarekin) bere musika instrumentu gustokoena eraikitzen hasiko da kartoi eta kartulinen bidez. · Instrumentua sortzen hasteko, gomendagarria izango da haurrek etxetik ahal duten material guztia ekartzea. Baina hori posible ez bada, eskolan lortuko da. · Ariketa honen helburu nagusia haurrak orkestra baten egongo balira bezala sentitzea izango da. Horretarako, haiek sorturiko musika instrumentuak hartuko dituzte, orkestra baten moduan eseriko dira, hau da, zuzendariaren inguruan erdi-zirkulu bat sortuz. · Horretaz gain, kontuan izanda haur bakoitzak gutxi gorabehera badakiela zein den instrumentu bakoitzak sortzen duen soinua, bere txanda denean soinu hori egingo du. · Soinua egiteko, bere gorputza erabili dezakete. 	<ul style="list-style-type: none"> · Kartoizko kutxak · Kolorezko kartulinak · Koloretako globoak · Artilea · Kola · Artaziak 	<ul style="list-style-type: none"> · Plastika gela · Musika gela · 50'



8. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
Egilea ezagutzen	<ul style="list-style-type: none"> · Jarduera honen bidez, ipuin musikaleko egilearen bizitza ezagutuko dugu. · Irakasleak egilearen inguruko datu gutxi batzuk esango dizkie haurrei. · Horretarako, irakasleak galdera batzuk egingo dizkiete haurrei: <ul style="list-style-type: none"> a) Ba al dakizue nor den ipuin honen egilea? b) Non bizi da? c) Zein da bere ogibidea? d) Musika instrumenturik jotzen zuen? Horrela bada, ba al dakigu zein jotzen zuen? · Behin galderak erantzun dituztela, Sergei Prokofiev-en bideo bat jarriko die irakasleak ikasleei. 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailua · Egilearen inguruko power point bat · Egilearen inguruko bideo bat 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailu gela · 10-15'

9. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
Sergei Prokofiev-en lanetan barneratzen	<ul style="list-style-type: none"> · Aurreko jardueran Sergei Prokofiev nor den ezagutu dugu, hori dela eta, ariketa honetan bere lanetan gehiago barneratuko gara. · Bere lanen artean hainbat lan ezagun aurkitu daitezke, baina ariketa honetarako Sergei Prokofiev-en “El amor de las tres naranjas” lana erabiliko dugu. · Lan honetan, musika instrumentuez gain, beste soinu batzuk ere entzungo dira. Bertan, erritmo bizkorrak zein motelagoak antzeman daitezke. · Jarduera honen barnean, hainbat jolas egingo dira. · Lehengo jolasean haurrak animalietan bilakatuko dira: <ul style="list-style-type: none"> ➤ Lehenengo eta behin, ipuineko animalia bat aukeratuko du irakasleak. ➤ Adibidez: ikasleek katuak izango balira bezala jokatu dute. Kasu honetan, katuak ibiltzen diren bezala gelatik zehar arituko dira. Lau hankatan jarriz, eta musika entzunda, gelatik mugituko dira. Gauza bera, ipuinean agertzen diren animaliekin egingo dute. ➤ Jolas hau beste era batera ere antolatu daiteke: <ul style="list-style-type: none"> ❖ Irakasleak taldeak egingo ditu eta talde bakoitzari rol desberdin bat emango dio. ❖ Animalia bat errepresentatzen duen talde bakoitza, gelako punta batean egongo da bere etxearen barruan. 	<ul style="list-style-type: none"> · Ordenagailua · Aukeratutako obraren musika 	<ul style="list-style-type: none"> · Psikomotrizitate gela · 50’

	<ul style="list-style-type: none"> ❖ Harrapaketa antzerako bat egin beharko dute. Talde bakoitza, bere aurkaria den taldeko kideren bat harrapatzen saiatu beharko da. Esate baterako, ahateak txoria harrapatu, katuak ahatea eta otsoak katua. · Hurrengo jolasa, ondorengoa izango da: musikaren pultsoa jarraitzea. <ul style="list-style-type: none"> ➤ Haurrak bikoteka jarriko dira eta ispiluaren jolasa egingo dute. ➤ Kasu honetan, abestiaren entzuketa aktiboa eginez, haur batek mugimendu batzuk egingo ditu eta bere bikoteak imitatu. · Beste jolas bat dantza bat asmatzen saiatzea izango da. Horretarako pauso edo mugimendu desberdinak egingo dituzte abestian zehar. · Azken finean, jarduera honen helburua hurrek entzuketa aktiboa egitea da, ondo pasatzeaz gain. · Hurrengo esteka erabiliko da ariketa aurrera eramanez ahal izateko: [Russian Philharmonic – Moscow City Symphony]. (2012). S. Prokofiev. Suite from The Love for Three Oranges. 03. March. Berreskuratua: https://www.youtube.com/watch?v=7Q0toEhKRWk 		
--	---	--	--

<p>1. TXALOAK</p>	<p>2. MARTXA</p>	<p>3. ALDEETARA MUGITZEN</p>	<p>4. “V”</p>
			
<p>5. BESOAK GORA ETA BEHERA</p>	<p>6. SALTOAK</p>	<p>7. BELAUNAK GORA ETA BEHERA</p>	
			

10. JARDUERA	DESKRIBAPENA	BALIABIDEAK / MATERIALAK	ESPAZIOA / DENBORA
<p>Zer-nolako esperientzia izan dugu?</p>	<ul style="list-style-type: none"> · Hurrek irakaslearen inguruan erdi-zirkulu bat osatuko dute. · Behin eserita daudela, irakaslea hurrei galderak egiten hasiko da eta haur bakoitzak bere txanda errespetatuz, irakasleari galderak erantzungo dizkio. · Hurrengoak izango dira irakasleak burutuko dituen galderak: <ul style="list-style-type: none"> a) Zelan sentitu zarete egindako ariketekin? b) Zer iruditu zaizkizue planteatutako jarduerak? c) Nola pasatu duzue? Posiblea izango litzateke marrazki bat egitea nola pasatu duzuen adierazten duena? d) Kontatuko didazue zer den egin duzuen? e) Animatuko zinateke, aukera badago, estilo honetako jarduera gehiagotan parte hartzea? f) Etorkizunean jakingo zenukete instrumentuak ezberdintzen? g) Ariketak gustatu bazaizkizue, gurasoekin etxean jardueraren bat egingo zenukete? h) Egin diren ariketez gain, zerbait gehiago egitea gustatuko litzaizueke? i) Ariketek zenbateraino balio izan dutela sentitzen duzue? 	<ul style="list-style-type: none"> · Aulkiak 	<ul style="list-style-type: none"> · Gela · 10-15'

	<ul style="list-style-type: none"> · Bukatzeko, posiblea den heinean, Lehen Hezkuntzako edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle bati aukera emango zaio Haur Hezkuntzako umeengana etortzeko eta zuzeneko kontzertu bat egiteko. · Era horretan, hurrek instrumentu baten benetako tamaina zein den ikusiko dute. Horretaz gain, aukera paregabea izan daiteke ikasleak “Pedro eta Otsoa” obrako hasierako abestia jotzea. Horrela, haurrak txundituta geratuko dira. 		
--	---	--	--